

t tipi t tapa

456



Iñigo Larrea, Aranoko
alkatearekin solasean **03**

Aranoarrak aurten hirugarren le-gealdia hasiko du alkatetzan, urriaren 28ko hauteskundeetara zerrenda bakarria aurkeztu baita. Aranoren egoeraz aritu gara.



Lurdes eta Izaskun
etxalartarrak irabazle **37**

Lurdes Galarregi eta Izaskun Ariztegi etxalartarrak bigarrenz jauntzi dute aurten Igantzin jokaturako Nafarroako emakumezkoen arpana txapelketa.

2007ko urriaren 18a • XXVII. urtea
www.ttipi.net



ELIZONDOKO FERIAK

23 Azken urteetan
azienda guti, jende aunitz



ORDOKI

altzariak
Estilo ugariako
mobleak

ERAKUSKETA: Bittiria 26
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27
Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA



FUTBOLA GUSTOKO DUT

ETA **CANAL+** EN DENA DAUKAT

CANAL+ hilabetean

19,95
€ tik hasita

Orain, eguneko partida bat
opari bi hilabetez

Harpidetza egiteko etorri
BORTZIRIAK
Bidasoa, 45 • BERA
edo 948 630 377ra delitu

DIGITAL+



BORTZIRIAK, S.L.

DATUAK...

- 27 urterekin izendatu zuten Iñigo Larrea Aranoko alkate lehendabizikoz. Geroztik zortzi urte pasatu dira, eta urriaren 28ko hauteskundeetan herriz ere hautagaia izanen da.
- Maiatzeko hauteskundeetarako ez zen zerrendarik aurkeztu Aranon, orain, ordea, bigarren aukera izanen dute.
- Herrian zergatik ez den zerrendarik aurkeztu galde-tuta, Udalean sartzeak jendeari beldurra ematen diola uste du, eta horregatik ez duela aurrerapausorik ematen.



Iñigo LARREA Aranoko alkatea

ARGAZKIA: KONTXI CLAVER

«Udala desagertzeko zurrumurrua zabaldu zelako aurkeztu nintzen alkatetzara»

Gurutze PIKABEA

Nolatan sartu zinen alkatetzan?

Lana lana da, baina baten batek egin behar du eta... Zurrumurrua zabaldu zen herrian Udala desagertzeko arriskua zegoela eta batez ere horregatik sartu ginen. Ez dakit nahita edo ez, baina ez zegoen oso argi inork borondaterik jartzen ez bazuen zer gertatuko zen. Bost herritar elkartu ginen, eta aurrera. Txarrerako edo onerako ez dakit, baina zerbait egin beharra zegoen. Jendeak arrunt erraza ikusten du dena, eta errazena aurrerapausorik ez ematea da. Orain berdin gertatzen da, hauteskundeak ailegatzean, ez da inor egoten prest, ez da inor etortzen laguntzera. Independenten bezala aurkezten gara, eta lan egiteko gogoia duen jendea behar da. **Orain artekoarekin, nolako balorazioa egiten duzu?**

Esperientzia polita da. Bi alde ditu: herrirako behar diren gauzak lortzea eta egitea polita da. Alde txarra edo, herri txikia izanagatik jendeari hemen ere legeak daudela ulertaraztea da, eta horiek betetzeko daudela. Arauak denentzako berdinak dira.

«Herrian behar diren gauzak lortzea eta egitea polita da. Zailena herri txikia izanagatik hemen ere legeak betetzeko daudela ulertaraztea da»

Zaila da egunerokoa alkatetzarekin bateratzea?

Ez, ez da zaila. Aurreneko legealdian lana eta Udaleko ardura tartekatu egin nituen. Bigarreanean, ordea, Udalari dedikatu nintzaion esklusiboki. Obrak zeuden eta ordu asko sartzea eskatzen zuen, eta nire bizimoduagatik prest nengoen horretarako. Gainera, Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak ematea adostu zuen, eta soldatarekin azken legealdian alkatetzara dedikatu naiz. Urte honen hasieran berri lanean hasi nintzen. Lanaldi erdiz hasi nintzen eta Udalarekin batera, orain pixka bat denetik egiten ari naiz. Halere, orain nahiko lasai dago herria, partikularren obrak daudenean, orduan izaten dira korapilorik handienak. Beti esaten da udaletxeetan lan asko egoten dela atzeratua, bai-

na horretarako ehuneko ehun horretan ariko litzatekeen norbait beharko litzateke, lan talde handia.

Zein betebeharrak dituzte alkatetzara Aranon?

Denetarik egin behar da. Udal taldean hiru gaude orain, eta beste zinegotziek ezin badute ni joaten naiz. Azken legealdian esklusiboki alkatetzara dedikatu naizenez, nik egiten nuen gehiena, baina harremana beti mantendu dugu. Gero eta jende gehiago izan, orduan eta hobe. Eta gazte jendeari ere lasai etortzeko esaten diot, lan egiteko jendea behar dela baina...

Zein proiektu dituzue buruan heldu den urteei begira?

Promotore pribatu batek 40 etxebizitza egiteko proiektua dago. Horrek herria bikoiztuko dela suposatuko luke. Horrez gain, Suro auzoan ura tratatu behar da, eta herritik eraman. Lehen erabiltzen ziren depositu zahar batekin daude, eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin 2008aren hasieran hasiko da obra. Herriko auzo guztietan argiteria ere paratu nahi da, eta gau guztian alferrik ez gastatzeko neurriak hartu.



ARGAZKIA: AITZIBER LARRABURU

Ezkerretik eskuinera, Urko Ikardo Bortzirietako euskara teknikaria, Raul Lopez Baztango euskara teknikaria, Xabi Torres solas-laguna, Oianko Garde Baztango Bai Euskarariko teknikaria eta Beñardo Goietxe IKA euskaltegiko irakaslea urriaren 10ean egindako Solas-laguna proiektuaren aurkezpenean.

EUSKARA MANKOMUNITATE ETA EUSKALTEGIEN ESKUTIK

Euskaraz aritzeko solas-lagun bila Bortziriak, Baztan eta Malerrekan

Euskaraz solasteko lagunak behar dira. Horixe da hain zuzen Solas-laguna egitasmoaren gakoa. Hizkuntza bat ikasteko modurik eraginkorrena erabiltzea delako, euskaldun berriei horretarako aukera ematea da Solas-lagunaren helburua. Euskara ikasten ari direnei hizkuntza praktikatzeko aukera eman nahian, euskaraz dakitenei «bertze lagun batzuei euskaraz egoki solasten laguntzeko» deia egin dute Bortzirietan, Baztanen eta Malerrekan. Hala adierazi zuten antolatzaileek joan den urriaren 10ean Beran egindako aurkezpenean. «Euskara ikasten ari direnak erabilerarako pausoa ematea, eta euskaraz solasteko lotsaren muga psikologikoa gainditzea», horiexek egitasmoaren ardatzak, eta baldintza bakarra «euskaraz aritzea». Izan ere, Baztan, Bortziriak eta Malerrekan euskara nekez dakiten 1.827 lagun daude eta horiek euren gaitasuna hobetzeko aukera euskaraz ongi dakiteneen esku dago (16.595 lagunek ongi dakite euskaraz). Izen ematea Bortziriak, Malerreka eta Baztango Euskara Mankomunitateetan eta euskaltegietan egin beharko da.

Gurutze PIKABEA

«Hizkuntza bat ez da galtzen, ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen dutelako baizik». Artzeren esaldi ospetsua. Bistan da erabilerak egiten duela hizkuntza bat bi, eta erabiltzen ez den hizkuntzaren patua desagertzea dela. Dena den, hizkuntza ikasten dutenek ere, hizkuntza indarberritu egiten dute. *Mintza-laguna, Berba-laguna...* Eta gurean Solas-laguna. Euskal Herriko hainbat lekutan martxan paratu ondotik, ailegatu zen Solas-laguna egitasmoa Bortzirietara. Otsailean izan zen hori. Orain, berriz, ikasturte berriarekin batera Baztan eta Malerreka ailegatu da euskararen mintza praktikak egiteko proiektua. Egitasmoak euskara ikasleei euskal hizkuntzaren solasteko aukera eman nahi die, hartara, euren irakaskuntza prozesuari bultzada emateko. Bidenabar,



ARGAZKIA: GURUTZE PIKABEA

Mari Jose RICO IKA euskaltegiko euskara ikaslea

Zergatik erabaki zenuen euskara ikastea?

Beran bizi naiz eta nire lagunek denek dakite euskaraz. Nik ere eurekin euskaraz solastu nahi nuen. Normalean eurek euskaraz galdetu eta nik gaztelaraz erantzuten nien. Ulertu dena egiten dut, baina solastea gehiago kostatzen zait. Bi urte darrazat euskaltegian eta poliki-poliki ari naiz ikasten. **Hemen bizitzeko euskaraz jakitea beharrezkoa dela iruditzen zaizu?**

Bai, nik uste dut baietz. Hemen denek edo ia denek solasten dute euskaraz. Lan egiteko ere beharrezkoa dela erranen nuke.

Euskarak duen zailena, zer da zuretzat?

Solastea. Aditzak eta denak ongi erratea konplikatu da.

Egunerokoa erabiltzen duzu euskaraz?

Gutti, lotsatu egiten naiz, baina orain gero eta gehiago erabiltzen dut. Nire mutilak, lagun guztiek eta ahizpak ere badakite euskaraz eta eurek lagundu egiten didate. Gurasoek ez dakite euskaraz, baina beti bultzatu naute euskara ikastera.

Solas-laguna proiektuan ere parte hartu duzu. Zer iritzi duzu egitasmoari buruz?

Euskara praktikatzeko eta lotsa kentzeko hagitz ongi

dago. Nire kasuan bi laguneko taldea ginen, ni eta beste neska bat, eta solasteko gelditzen ginen. Berak ere nik bezala daki euskaraz, eta elkarrekin euskaraz solastuz, paseatzera joan edo kafe bat hartzen genuen.

Aurten ere parte hartuko duzu?

Denbora baldin badut bai.

Zer erranen zenioke euskaraz jakin bai, baina euskaraz solasteak lotsa ematen dion bati?

Hasteko, lotsa kentzeko, eta horretarako animoak. Inguruan lotsa kentzeko bide aunitz dago. Horra hor Solas-laguna proiektua adibidez, eta hagitz ongi dago. Euskaltegiak ere hor daude, eta ez dira gramatika ikasteko bakarrik. Solasean aritzen gara, eta euskaraz komunikatzen ikasten dugu.

«Euskaraz solasteko lotsa kentzeko bide aunitz dago hemen»

euskaldunek aukera izanen dute gizarzte osoaren euskalduntze prozesuan eragile aktibo izateko.

Gero eta jende gehiago dira, euskaltegiatan izena ematen dutenak, euskara maila hobetu nahi dutelako, herriarekiko edo kulturarekiko lotura sentitu dutelako edo lanagatik. Arrazoi bat edo berte bat tarteko, eta horiek ere aukera berri bat merezi dutelako *Solas-laguna* proiektuan parte hartzeko euskal hiztunak behar dira. Izan ere, euskaraz jakin arren, solasteak lotsa ematen die aunitzei eta hori gainditzea ere helburu nagusia da. Horregatik, euskaraz batzuk bertzeek baino gehiago dakitenak taldean biltzea da asmoa. Otsailean Beran bi talde elkartu ziren, eta bakarra Lesakan. Ikasturte berriaren atarian, eskaintza berriro zabalik dago. Mankomunitatea taldeak egiteaz arduratuko litzateke, eta partaideak elkarrekin harremanean jartzeaz. Gainerakoan, taldekideek eurek adostuko lukete zertarako elkartu (mendira joateko, kirola egiteko, kultur ekitaldi batera joateko, kafea hartzeko...). Guttinez asteen behin eta ordu batez elkartuko ziratekeen. Horretarako, interesatuek ondoko taulan adierazten den lekuetan eman behar harko dute izena.

DATUAK BAZTAN, BORTZIRIAK ETA MALERREKAN

Mankomunitateetako ordezkariak utzi

dizkiguten datuen arabera, badago zeregina, eta erdaldunak euskararen mundura erakartzea gure esku ere badago. Baztan, Bortzirriak eta Malerrekako datuei erreparatu gero, euskaraz ongi dakitenen kopuru baxuena Baztanek du, baita euskaraz nekez egiten dutenen eta ez dakitenen kopuru altuena ere; altuena Malerrekan. Baztanen populazioaren %76,7ak ongi daki euskaraz; %14,7ak nekez daki euskaraz; eta gainerako %8,6ak ez daki euskaraz. Zehazki, Baztanen 767 lagunek nekez daki euskaraz, eta 5.510 lagunek ongi.

Bortzirietan, euskaraz ongi dakitenen kopurua %81,6koa da; nekez dakitenena %9,9koa; eta ez dakitenena

8,5 puntukoa. 789 lagunek nekez baitakite euskaraz Bortzirietan. Euskaraz ongi dakitenenak, berriz, 6.498 dira.

Portzentajerik baikorrenak Malerrekan topatu ditugu: %86,4ak ongi daki euskaraz (Baztanen baino ia %10 gehiagok); nekez egiten dutenen kopurua %5,3koa da; eta ez dakitenena %8,3koa. Malerrekako 271 lagunek nekez egiten dute euskaraz, eta ongi dakitenak 4.387 dira.

Hiru eskualdeko datuak aintzat hartuz, 1.827 lagunek nekez egiten dute euskaraz; eta 16.595ek ongi.

Datuok ikusita, euskara gure hizkuntza delako eta muga guztien gainetik gurea denarekin egin behar dugulako aitzinera.

IZEN EMATEA

BAZTAN
Udaleko
Euskara Zerbitzua
Elizondo
948 580006
Baztango
Suinki Euskaltegia
948 452471

BORTZIRIAK
Euskara
Mankomunitatea
Arantza
948 634125
Bortzirietako
Euskaltegia
948 637796

MALERREKA
Euskara
Zerbitzua
Doneztebe
948 451746
Malerrekako
Euskaltegia
948 451555

EUSKARAREN EZAGUTZA

	BAZTAN	BORTZIRIAK	MALERREKA
EUSKARAZ ONGI	% 76,7	% 81,6	% 86,4
NEKEZ	% 14,7	% 9,9	% 5,3
EZ DAKITE	% 8,6	% 8,5	% 8,3

DATU ITURRIAK: Udal erakundeek utzitakoak.

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Gurutze Pikabea.

Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitzeta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	32 €
Espainia	32 €
Sara (edantegia-okindegia)	40 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika	110 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitzeta	26 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

● IRAKURLEAK MINTZO ●

Erdiz saltzeko arriskuan

Urriaren 1ean izandako Batzar Nagusian, Baztango NaBai taldeak baztandar guztiei iruzur egiteko saiakera egin zuen. Magna enpresa multinazionalak Erdizko proiektua babesteko erabakia irailan bertan har zezan eskatu zion Batzango Udala eta Batzar Nagusiari. Irailaren 26an, Erdiz Bizirik plataforma Batzar Nagusiko kideekin bildu zen. Bilera horretan erreferendum bitartez baztandarren iritzia jasotzea proposatu zen eta Batzar Nagusiak herriaren ahotsa bere egitea. Urriaren 1eko batzarrean beste proposamenik ez zutela eginen erran zuten NaBaiko ordezkariak. Batzar Nagusiko bilkurako gaien artean, Magnako eskaria irakurri zen eta, bere hitza janean, Juntako presidentek, NaBairen ize-nean, haren aldeko bo-toa planteatu, beti ere, Nafarroako Gobernu-ko Ingurumen sailaren txostena proiektuaren aldekoa bada. NaBaik mu-zin egin zien bertze es-kari eta planteamendu guztiei. Jarrera horrekin, baztandarrei erabaki-tzeko ahalmena lapur-tzen die, nahiz eta, bere iruzurra estaltzeko, kuartelkako bilera infor-matiboetan helegiteak aurkezteko aukera eskaini. Iseka honen aitzi-nean, nahasmena eta haserre sortu zen ber-taratako herritarren ar-

tean, hala nola, zenbait Juntakideen artean. Az-ken hauen eskariz Ba-tzar Nagusia bertan be-hera geratu zen. Honen aitzinean Baztango EAE-ANVk zera adiera-zi nahi du: Baztango Udala eta Batzar Nagu-sia osatzerakoan, Na-Baik eta UPNk, EAE-ANVri dagozkigun zine-gotzietatik bana lapur-tu digute, 676 baztanda-rren hautua zokoratuz, lege antidemokratiko ba-ten babesean. Batzar Nagusiko presidentek bilkura horretatik EAE-ANVko kidea kanpora-tzea agindu zuen. Hau al da demokrazia uler-tzeko duzuen modua? Bide batez, EAE-ANVk bere jarrera zein den ar-gitu nahi du: Erdiz us-tiatzeko proiektuak baz-tandarroi zein inguruko eskualdeei eragiten die. Epe motzean nekaza-rieta ingurumenari se-kulako kaltea eragingo lioke. Epe luzera balio handiko ondasun baten betiko desagerpena eka-rriko luke, batez ere, kan-poko enpresa multina-zional baten ekonomia-ren mesedetan. Irtenbi-de egokiena errefendu-marena da, demokra-zian oinarritzen den he-rri galdeketa. Akitzeko, NaBai eta UPN taldeei, hiru eskaera hauek lu-zatzen dizkiegu: - Alderdi interesak alde batera utzi ditzaten. - Baztango he-rritarren iritzia aditu eta errespetatu dezaten. - Baztandarren alde lan egin dezaten. Erdizek Bizirik iraun dezala!!

Baztango EAE-ANV

Baztango EAJ-PNVren oharra

Artesiaga inguruan eraiki nahi den harro-biaren proiektua dela eta, Baztango Batzar Orokorrean Erdiz Bizirik plataformako kideek eta abertzale erradika-lek eragindako eraso larrien aitzinean, EAJ-PNVren herri batzarrak zera adierazi nahi du:

1- Deitoratu eta gai-tzetsi egiten dugu era-soak eragin zituztenen jarrera lotsagarria eta zentzugabea, gizarte zi-bilizatu batean pertso-na batek izan behar duen guttieneko eduka-zio eta jarreratik urruti gelditzen baitira. Eurek ere egindako eskaera eta defendatzen dutela dioten jarreraren balizko lejitimitatea deskali-fikatzen dute.

2- Baztango Batzar Orokorrak eta Udalak le-jitimatua daude lege eskakizun guztiak bete-tzen dituzten akordio eta erabakiak hartzeko, in-teres orokorrekoak di-renean; bide adminis-tratibo eta sozialak dau-de horiek eztabaidatze-ko, helegiteak aurkeztu eta adostasun eza adie-razteko, elkarrizketa eta elkar errespetatuz.

3- Batera onargarriak ez direlako, salatu egi-ten ditugu Batzar Oro-korraren aurkako kide-riren kontra egindako irain eta akusazio faltsuak. Jarrera anker eta gogo-rra hartu zutelako, ba-tez ere ezagutzen diren baztandarren arte eta eguneroko harremana

dutenean artean.

4- Virginia Aleman al-kate eta presidenteari gure babes osoa eskai-ni nahi diogu, eta bide batez, bilkuran eraku-tsitako energia eta duin-tasunagatik zoriondu. Al-di berean, elkarrizketa, eztabaida demokratiko eta baketsuaren alde la-nean segitu dezan ani-matzen dugu, eta in-formazio saioak, eta baz-tandarren iritzia eta par-te-hartzea bultzatzeko ekimenak aitzinera era-man ditzan, beti ere, Baztanen interes oro-korreraren mesederako erabakiak badira.

5- Era batera edo ber-tzera, halako jarrerare-kin ados ez daudela erran eta gertatutakoa salatu zuten herritarrei gure esker ona adiera-zi nahi diegu.

Baztango EAJ-PNV

Leitzako alkate ohiaren zuzenketa

Besterik gabe, argi utzi nahi dut, nik itzul-tzen nuela Udaletik ko-bratzen nuena. Hau da, nik batzarretara joate-gatik jasotzen banuen, ttipi-ttapan jarri duzue-na eta hori guztiz egia baldin bazen ere, adie-razi nahi dizuet, 80 eu-rorekin gelditzen nintzela besterik ez, beste zine-gotziak bezala. Hortik gora jasotzen nuena, ko-bratu ahala Udalarai itzul-tzen niolako.

Patxi Saenz Leitzako alkate ohi

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



BERRIA, 2007-10-03

Duela 12 urte aita hil eginzen. Orduan ama eta hirurak bizi ginen baserrian. Azienda asko genuen, eta ama bakarrik gelditu zen: Amak bakarrik ezin zuen dena eraman, eta amari laguntzeko gelditu nintzen baserrian. Asmoa nuen nonbaiten lanean hastekoa, baina oharterako 12 urte pasatu dira. Beti beste lan batean hasi behar nuela esaten nion neure buruari baina hemen gelditu naiz. Horrela ere gustura bizi naiz. Bizitzak beste bide batetik eraman nau».

Kristina SARALEGI
Leitzako baserritarra
Berria 2007-10-03

«Egia erran atzendua nuen nolakoak izaten diren pilota aukeraketak ere».
«Enpresak eman didan aukera berriarekin hagitz kontent nago, goi mailako txapelketa batean parte hartzea pozgarria da. Aukera eman didate eta espero dut aprobetxatzea. Niretzat hemen egotea saria da, oparia. Eta hurrengo txandara pasatzea lortzea ongi legoke; eta ez badut lortzen ere ez da deus pasatuko». «Esainen pilotak indartsuagoak dira, behetik ibiltzen direnak».

Mikel GOÑI
Aspeko pilotaria
D. Noticias 2007-10-05

• 11 GALDERA LABUR •

Lizarran bizi den goizuetarra edo Goizuetan sortutako lizarrako semea?

Lizartar goizuetarra.

Baserria, arrantza, artzaintza... galtear dauden ofizioekin jolasterik bada?

Bai, zalantzarik gabe. Bizitzarekin jolas daitekeen bezala, nahiz eta bazuetan gogorra etorri.

Zergatik Kulki izena?

Kulturarekin lotutako kirolak eta jolasak landu nahi genituelako.

Garai bateko herri kirolek, herri tti-kietan edo hiri handietan dute arrakasta handiagoa?

Bietan. Festa borobilak egiten ditugu bi kasuetan.

Gameboy eta Playstationen garaien, herri kirolek badute haurrentzat xarmarik?

Bai. Fisikoak birtuala denari beti atarako dio abantaila, eta eskaintzen den fisikoa material interesgarria bada, zalantzarik gabe badu etorkizuna.

Hurrek edo gurasoek estimatzen dute gehiago Kulkiren eskaintza?

Gurasoek behintzat bai, eurek deitzen baitigute. Baina umeak gustura daudela ikusten dute, esperientzia polita eskaini nahi diete.

Kalean ez omen da haurrik ikusten jostetan. Kaletik etxe xokora pasatu da jostetalekua?

Beste erremediorik gabe. Egoerak behartutako zerbait da: familiaren ro-

lak aldatu direlako, daraman dugun abiadura zein den ikusita...

Solfeoa, judo, futbola, instrumentua... Ez al ditugu haurrak jolasteko denborarik gabe uzten?

Gizarteak behartua Jolastea egun ia ez da existitzen. Asteazkenean zehar jolastea entrenatzea da. Jolas hori eskolaz kanpoko ekintza da, begiraleekin, bestela isolatua geratuko da.

«Ai, nere haurrak ez dezala herri herri altxatu...». Seme-alabak sobera babesten ditugu?

Ez, gutxitan. Euskal Herrian ibiltzen gara, eta hemen ez da halakorik gertatzen. Txingak utzi eta jendeak ez du esango «ez hartu, bizkarrean min hartuko duzu». Jendeak aurrera egiten du, eta askok erakutsi.

Telebistan marrazki bizidunak ikusi edo lagunekin gordeka ibili?

Mila aldiz, gordeka ibili. Telebistak sekulako indarra dauka, baina orain ere oso gustura aritzen naiz umeekin.

Bizikleta bezala, udarako da Kulkiren eskaintza?

Urteko edozein sasoi dela, eskolara asko joaten gara, opari bat, egun berezi bat eskaintzea baita gurea.



Luisfer ETXEBERRIA
Kulkiko arduraduna

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
Tel: 948 645 475
BERA NAFARROA

JARDINE-GOZOTEKIA
Alasta 19, BERA, 48500728

Haitzetxea Landa Etxea
AISIALDIA
ZUGARRAMURDI
Tel: 670484567
687421445
www.haitzetxea.es

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

TOLDOAK salmenta-konponketa-alokairua-errotulazioa
MOSKITERAK-PERTSIANAK motorizatuak-venecianak
PVCzko LEIHO eta ITXITURAK
Tel-Fax: 948 631 003
Bidasoa, 66 behea - BERA

POLITIKA

Patxi Urrutia amaiurtarra aske utzi du epaileak, bermepean

24.000 euroko bermea ordaintzeko astebeteko epea eman zioten

ttipi-ttapa

Batasuneko Mahai Nazionalako 23 kide atxilotu zituen urriaren 4ko arratsean Seguran (Gipuzkoa) Espainiako Poliziak, Baltasar Garzon Audientzia Nazionalako epailearen aginduz. Atxilotu horien artean zeuden Patxi Urrutia amaiurtarra eta Elizondon etxebizitza duen Juan Joxe Petrikorena. Atxilotu eta biharamunean, Urrutiaren Amaiurko etxea miatu zuen poliziak, baita Petrikorenaren Elizondoko etxea ere.

Urriaren 7an, igandean, deitu zituen deklaratzera atxilotutakoak Garzonek Madrilgo Audientzia Nazionalan, baina atxilotuetatik 20k uko egin zioten epailearen aitzinean deklaratzeari. Epaileak 23 lagunetik 17 kartzelara bidaltzea agindu zuen; bi aske utzi zituen inongo baldintzarik gabe, eta lau bermepean aske. Azken horien artean da-



UTZITAKOA

Baztango EAE-ANVk Batasuneko mahai nazionalaren atxiloteten inguruko salaketa egin zuen.

go Patxi Urrutia amaiurtarra ere. 24.000 euroko bermea ordaintzeko aste bateko epea eman zion Garzonek Urrutiari. Juan Joxe Petrikorenari, berriz, baldintzarik gabeko espetxe-zigorra ezarri dio, «ETA erakunde armatuko kide izatea» eta «lehenago egindako delitua berriz egitea» leporatuta. Pe-

trikorena eta bertze 16 kideak Soto del Real (Madril) espetxera bidali ditu.

ERREAKZIOAK

Euskal Herrian ez ezik, nazioartean ere oihartzun handia izan dute azken atxilotetek. Gisa berean, eskualdeko talde politiko batzuek ere berehala eman zu-

ten atxiloteten inguruko euren iritzia. Baztango EAE-ANV atxilotetak salatu egin zituen. Baztango EAJ-PNV alderdiak ere Patxi Urrutia amaiurtarren atxilotetarekiko «ezadostasuna» azaldu zuen prentsaohar batean, eta Urrutiaren eskubideak bermatzeko exijitu.

FLASH

Alkoholiko Elkarteak errekupeazio taldea aurkeztu du Baztanen

Urriaren 4an aurkeztu zuen Alkoholiko Anonimoak Elkarteak Baztanen sortu berri duen errekupeazio taldea. Aurkezpen ekitaldia informazio saio irekia izan zen, eta bertzeak bertze, Alkoholiko ANonimoak eta ALanon (alkoholiko senitartekoak) elkarte ordezkariek, Baztango Udaleko ordezkariek eta eskualdeko osasun zentroetako arduradunak eta gizarte zerbitzueta-ko langileak egon ziren. Euren burua alkoholikotzat jotz, esperientziak hurbiletik ezagutzeko aukera ere izan zen.

Euskal Herrian eta estatu espainiarrean aspaldidanik lanean ari den elkarte da Alkoholiko Anonimoak, eta Beran ere urteetako ibilbidea du. Urriaren 4ko aurkezpen egunean, Baztan aldeko beharra asetzeko bertze elkarre bat behar zela azpimarratu zuten bildutakoek. Bilkurak Bidelagunuen egoitzan egingen dira, asteartero, 19:00etatik 20:30era. Informazio gehiagorako deitu 948241010 edo 609478341ra.

Martzutzak
Moda eta osagarri modernistak

Eztegara, 12 • BERA • 948 631 425

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittirio, 71-behea • Tel: 948 637 050 • Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 • Tel: 948 133 328 • Faxa: 948 133 713

BERA

FLASH

Lurraren Egunaren XXI. edizioa urriaren 28an egingen da

Bezperan Lizuniagako Igoera lasterketa egingen da

ttipi-ttapa

21 urte pasatu dira dagoeneko Lurraren Egunaren lehen edizioa egin zenetik. Aurtengoa ere gainean dugu, urriaren 28an izanen da eta urtero bezala, ekitaldiz gainezka datorren egitaraua prestatu dute Gure Txokoa Elkarteak eta Kultur Batzordeak. Urriaren 27an, bezperan, Lizuniagako Igoera lasterketa jokatu da, 17:00etan. Beranduago, berriz, 18:30ean barazkiopil lehiaketa egingen da. Plateraren oinarria arrautza izanen da eta osagaiak barazkiak edo lurrak ematen duen edozein fruitu. Banaka zein bikoteka, parte-hartzaile bakoitzak 12 lagunentzat prestatu behar du platera.

Egun handia igandea izanen da. 10:00etatik aitzinera, txalaparta hotsak, eskulangileen azoka eta erakusketa, barazki erakusketa, Bortzirietako produktuen salmenta, argazki erakusketa, ikastetxeetako postuak eta bertze hainbertze Altzateko karriketan izanen dira; eguraldi txarreakin, berriz, kiroldegian eta Altzateko frontoian. 11:00etan gasna



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

'Mugarik gabe' topaketa arrakastatsua urriaren 7an Hilabetetako lanak fruitu ezinhobea eman zuela erakutsi zuen urriaren 7ko Bortzirietako Mugarik gabe topaketak. 17:00etatik aitzinera ekitaldi andana izan ziren Altzateko frontoian: Silveira eta Zelaieta bertsolariak, Hegoameriketako eta Bortzirietako folklorea, etorkinen eskubideen aldeko manifestuaren irakurketa eta sinadura ekitaldia, futbol txapelketa azkarraren sari banaketa, topaketa gastronomikoa, Berako Abesbatza, Batuka eta Mojitoa... Eguraldi ederra lagun, inguruko zein kanpoko jende saila hurbildu zen ekitaldian parte hartzera; antolatzaileak ere kontent ageri ziren elgarretaratzeak izandako arrakastarekin.

eta sagardo lehiaketari emanen zaio hasiera. 11:30ean Bera trikitixa eskolako txanda izanen da, eta 12:00etan, berriz, Berako Musika Eskola eta Gure Txokoako dantzariak emanaldia eskainiko dute. Arratsaldeari dagokionez, 16:00etan haurren txanda izanen da: Bihar txotxongilo taldeak *Kli! Kla! Birzikla!* ikuskizuna

eskainiko du Altzaten. 17:30ean sari banaketa eta enkanteari ekinen zaio. Gazta lehiaketan, lehen saria eramaten duenak 220 euro eta oroigarria jasoko ditu; bigarrenak 100 euro jasoko ditu eta hirugarrenak 75 euro. Sagardo lehiaketan, sari bakarra banatuko da eta irabazleak 200 euro eta oroigarria jasoko ditu.

Julio Soto eta Julen Zelaieta bertsolariek ere euren saioa eskainiko dute. 18:30ean Irats taldeak bere azken dantzaldia eskainiko du, eta ilunabarrean Joseba Iratzoki eta Belardian. Horrez gain, taloak, sagardoa, gaztainak eta eskualdeko bertzelako produktuak egun guztian izanen dira ikusgai eta salgai

N-121A errepidea estutua

N-121A errepide zati tiko obrak zer errana ematen segitzen du. Urriaren 4az geroztik areagotu egin dira auto pilaketak. Izan ere, Berako hiru karrilak akautzen den tokiaren eta Villanuevako bihurgunearen artean seinaleen birtartez bidea txandaka ematen ari dira 8:00etatik 19:00etara eta horrek pilaketak eragiten ditu. Datozen lau hilabeteetan egonen da errepidea mehartua.

Toki Ona 'Tribucan' proiektuan

Tribucan izenarekin Nafarroako zortzi ikastetxek proiektu berria garatuko dute ikasturte honetan, tartean, Toki Ona Institutuak. Estatu espainiarrean aitzindaria den egitasmo honen helburua, gizarteak gazteen hezkuntzarekin bat egitea da, solidarioak eta arduratsuak izan daitezten. Lehen edizio honetan, Sri Lankan tsunamiak kaltetutako herriarrei lagundu nahi die.

1968koen kinto besta Zalainen

1968an jaiotako be-ratarren kinto besta egingen da urriaren 27an. Zalain jatetxean egingen da afaria, eta joan nahi duenak aitzinetik 10 euro utzi behar du Zalain jatetxean bertan. 20:00etatik aitzinera elkartuko dira Errekalden.

carohe
gostegia onkidea

of. de estogara 25 bajo 948 63 08 99
35700 berri (navarra) www.carohe.net

LABE ZAR

Tel: 948 631 076 - BERA

ANSONEA
Ostatua - Jatetxea

Eguneroko menua eta asteburatzen menu bereziak

Terraza estalia eta Ziberkafea

Foruen Plaza 1 - 948 631 153 - BERA

LESAKA

Ikastola inguruko lurren salmenta kontratua ezabatu beharko du Juan Fermin Mitxelenak

«Nire hanka sartzea izanik, dudarik gabe nik moldatuko dut» adierazi zuen

Aitor AROTZENA

Alkate zenean, 2007ko maiatzean, bi kontratu sinatu zituen Juan Fermin Mitxelenak eraikitzaile batekin, eta haien bitartez Doña Cornelia Lecuona Fundazioarenak diren hiru lur-eremu saldu zizkion. Zehazki, Kristo-Enea futbol zelaiak hartzen dituen 6.674 metro koa droak eta ondoko bertze 130 metro 450.655 euroan saldu ziren eta ikastola pareko baratza, 708 metrokoa, 140.000 euroan. Bi dokumentu pribatuetan adierazten denaren arabera, Mitxelena aipatutako Fundazioaren izenean ariko litzateke. Baina Udalak ez zuen alde zuzenik inolako berrikerik izan operazio honi buruz eta Fundazioa kudeatzen duen patronatuko bertze bi kideek adierazi zuten Fundazioak ez zuela salmenta baimendu. Ikastolako ordezkariak ere adierazi zuten euren ez zela kontsultatu. Geroztik hainbat bilerak egin dira eta argi gelditu da lehengo alkateak bere kabuz sinatu zituela salmentarik, Fundazioaren boteretik eta ikastolaren adostasunik gabe. Honela, Pa-



ARGAZIAK: AITOR A.

Haurrak txotxongiloei adi-adi

Liburuzaina estu eta larri izeneko txotxongilo antzerkia adi-adi ikusi zuten herriko haurrek urriaren 9an liburutegian. Neska-mutikoei bertze hitzordu bat izanen duten leku berean urriaren 30ean. Hau ere Kultur Batzordeak antolatuta, Maite Franko ipuin kontalariak Halabazango ipuinak kontatuko ditu urriaren 30ean, asteartean, 18:00etan.

tronatuak eta ikastolak kontratua bertan behera uztea eskatzen dute, baina promotoreak ez du amore eman nahi.

Hau dena kontuan hartuta, Onin udal taldeak mozioa aurkeztu zuen azken batzarrean. Lehen puntuan «Juan Fermin Mitxelenak kontratu hauek berehala ezabatzeko eta ezabatzeko hori Udalaren aitizinean justifikatzeko dokumentalki» eskatzen zuten. EAJko udal tal-

deari ere galdetu zioten «jarduera honen berri zuten eta ea onartzen duten». Bertze puntu batean, «persona honek eragiten digun mesfidantza dela eta, Udal honetako bere kargua uzteko gonbitea» egiten zion Oninekin.

«UDALEAN ETA FUNDAZIOAN EZ DU ONDORIORIK IZANEN»

Juan Fermin Mitxelenak onartu zuen bere hanka sartzea izan de-

la, «garbi utziz, nahiz Udalean, nahiz Fundazioan ez duela erreperkusiorik izanen. Nire hanka sartzea izanik, dudarik gabe nik moldatuko dut eta honek ukitzen badu EAJ-PNV udal taldea, nik Udaleko kargua utziko dut».

Oninekin zinegotziak gogorarazi zuenez «Patronatuan alkatea dugu Udalaren ordezkari gisa, ez bere alderdiaren izenean, ez eta modu pertsonalean. Toki Ad-

ministrazioaren txostenak dioen bezala, udal txostenak ez omen da ondorioz izanen, baina ukazina da arduraren handia daukala, salerosketa kontratu hau sinatu zuen bat alkatea zelakoz».

Halere, azkenean, Oninen idatziaren lehen puntua bakarrik bozkatu eta ahobatez onartu zen eta Juan Fermin Mitxelenak kontratu hauek ezabatzeko arduraren du orain.

Alkate ohiak ttipi-ttipari aipatu dionez, «arazoa onez onean moldatuko dela uste dut, horretarako ari gara lanean abokatuekin. Hasiarako salerosketa kontratua bertzerik ez dago sinatua, baina dirurik ez da deus kobratu, ezta fidantzarik ere». Salerosketa kontratua sinatzea bere arduraren izan zela onartu arren, «momentu horretan Udaleko gure taldeak bazekien honen berri. Orduan koalizioa ginen eta EAko zinegotzia hirigintza arduraduna zen. EAko asanbleari gai honetaz informatzeko baimena eskatu zidan eta nik eman nion» adierazi digu Juan Fermin Mitxelenak.



ETXALAR

Izaskun Ariztegi eta Lurdes Galarregi Nafarroako arpanlari txapeldunak

Ekitaldi andana aste hondar honetan, Usategietako Igandearen aitzakian

Joseba eta Nerea

Behin hasi eta ezin gelditu. Nafarroako neska arpanlari hobereenak herritarrak dira. Bigarren urtez segidan, txapela Etxalarren dago. Joan den San Miguel bestetan Igantzin jokatuz zen Nafarroako emakumezkoen arpanlari txapelketan, Izaskun Ariztegi eta Lurdes Galarregi irabazle ateri ziren berriz ere. Joan den urtean baino aunitzez larriago ibili ziren, bigarren gelditu zen bikoteari 9 segunduko aldea bakarrik atera baitzioten. Aipatu digutenez, «inoiz baino urduriago geunden. Joan den urtean txapeldu izateak presio pixka bat eman zigun, eta Igantzin aritzea ez zen erraxa, ezagun eta lagun aunitz zeudelako». Joan den urriaren 12an, Pilarika Egu-

nean, Euskal Herriko txapelketan aritu ziren Basaurin, Bizkaian, baina lerro hauek idazterakoan ez dakigu zer egin duten. Hurrengo alean emanen dizuegu horren berri.

Tortilla Patata txapelketa eta kontzertuak larunbat honetan

Igande honetan, urriak 21, Usategietako Igandea ospatuko da, eta besta horren aitzakian, hainbat ekitaldi antolatu dira aste honbar osorako. Larunbatean haur eta gazteei zuzendutako ekitaldiak izanen dira: arratsaldeko 5etan magia ikuskizuna Kultur Etxean eta 18:30ean Etxalarko III. Patata Tortilla Txapelketa frontoian. Adin guztietako jendeari zuzen-



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Lurdes eta Izaskunek Nafarroako txapela jantzi zuten Igantzin.

dua dago eta parte hartzaileek tortillak egiteko beharrezko osagaiak eraman beharko dituzte; kanpin gasa eta sukaldatzeko tresnak. Bai partaideek, bai ikusleek sagardoa izanen dute txotx egiteko. Ondotik, egin diren patata tortilla guztiak probatzeko aukera izanen da. Arratsaldeko 7:30ean nesken txaranga arituko da kaleak alaitzen eta, afa-londotik, kontzertuak izanen dira Herriko Ostatuan Egurre taldearekin eta bertze talde gonbidatu batekin.

USATEGIETAKO IGANDEA

Denbora batean hagitx besta handia zena, modu apagalagoan bada ere, oraindik nahiko indartsu mantentzen da. Aurtengoan ere jende-

parrasta biltzea espero da Iharmendiko gainetan goizean goizetik. 17:00etan haurrentzako jolasak izanen dira Txatxilipurdi Aisialdi Taldearen eskutik; hondareko eskulanak, mundeuko jolasak eta muralgintza. 19:30ean Dantzaldia izanen da Joselu Anayak taldearekin. Ilunabarreko 8etan Altxata Kultur Elkarteak antolatzen duen Usategietako Igandeko zozketa egingen da. Arratsalde osoan, urtero bezala, Altxatak paratzen duen ostatuan taloak eta bokatak jateko aukera izanen da.

Kultur Egunak

Urtero bezala, Udazkeneko Kultur Egunak antolatu dira. Urriaren 25ean, ortzeguna, hi-

tzaldia izanen da Kultur Etxean. *Konposta: zer da eta nola egiten da?* izenburupean, Imanol Azpiroz Usurbilgo Udaleko zinegotzia eta San Markos Mankomunitateko lehendakariordea solasean arituko da. Urriaren 27an, larunbata, bertso-afaria izanen da Herriko Ostatuan. Lesaka eta Zarauzko bertsolariak rebantxan arituko dira, Joseba Olagarai gai-jartzailearen erranetara. Afarirako sarrerak salgai daude dagoeneko Elutsan eta Herriko. Urriaren 31n, asteazkena, 12:45ean antzerkia izanen da Kultur Etxean, *Ino-ino-ino, badator Bonbardino* izeneko. Euskara Bartzordeak antolatuta, Udalaren laguntzarekin egingen da.

PIKABEA
harategia • urdaitegia
janari prestatuak
Askain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284

ttipi
ttapa
% (0034) 948 635458

BAR
Botxo
OSTATUA

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masalak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • BRUN

IGANTZI

Eguraldi eta giro ederrean joan dira Sanmigel bestak

Xabi Sein eta Xabi Telletxea kirolariek bota zuten txupinazoa

ttipi-ttapa

Aitzineko asteburuan ere ekitaldi andana izan arren, irailaren 28an «Gora Sanmigelak» oihukatuz eman zioten hasiera aurtengo bes-tei. Aurtengo txupinazoa 2007. urteko igantziarrak botatzekoa zen, baina herritarrek ez zuten azken momentura arte jakin nor izanen zen. Azkenean bi izan ziren: Espainiako mendi bizikleta jautsiera txapelketa irabazi duen Xabi Telletxea txirrindularia eta herri kirol taldean lan handia eta Nafarroako ingude eta lasto altxatze txapelketa irabazi dituen Xabi Sein. Horrela eman zioten hasiera lau eguneko bes-tea egitarauari. Azkene-

ko urteetan bezala, larunbatarekin jokatu zen herri kirol saioa eta beitzuekin egindako ikuskizunak izan ziren ikusmin haundiena sortu zutenak. Batetik herriz herriko Nafarroako finalak eta Nafarroako emakumezko arpanlari txapelketak erabaki ziren. Betizuetan, berriz, txinoz jauntzitako koadrila azaldu zen txaragarekin zezen plazara. Ikuskizun polita eskaini zuten plaza inguruan bildutako ikusleen gozamenarako. Lizaso eta Mañukorta bertsolariekin egindako bertso-pilota saioak ere jendea erakarri zuen. Urriaren 1eko arratsean agurtu zituzten aurtengo Sanmigelak.



ARGAZIAK: OSKAR TXOPERENA

Era guztietako ekitaldiekin gozatu zuten herritarrek eta kanpotik etorritakoek bestetan.

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 - Aitzate, 17 - BERA

TOAILAK
Toailak-Mantelariak-Oheko maindreak
Eskolako haurren mantalak etab...
bordatzen ditugu
Herriko bestetarako, kamisetak, eta blue
perla bakoitzaren logotipo eta izenekin
bordatzen ditugu
Etxeri Plz. Berriz 4ra eta ikusi bertako enkaintza!!! Tel: 948 637 660 - 689 481

ANTZUZELAS
S.L.
Tel: 948 631 317
HARRI NATURALA
Aharotara eta Lantura
Berrizaldeak | Telletxeak
Agulek | Erriberak
Osoa | Belduak
Zubak | Zubak
Iruak | Iruak
Piruetak | Berrizak
Berrizaldeko Herriak
Zubak | Berrizaldeko Herriak
ZUBAK
Inongo errepidea
BERA

Lizardi
Telekomunikazioak
TDT Instalazioak
TB Instalazioak
(satelite, lurrekoak)
Instalazio indibidualak eta
kolektiboak
Portero automatikoak
Ebeko hari musikala
Tel. 670 415 720
joxeanlizardi@hotmail.com

ATM S.A.
AUXILIAR DE
TRANSFORMADOS
METAICOS S.A.
Igantziko bentak
948 63 74 11
• Txapa mozketak eta
tolestea 6 metro
bitarte, neurria eta
diseinuaren arabera.
• Enbalaketa elementuak
eta flejeak.
• Garraioak zintak eta
mahaia
• Mantenu rodilloak

ARANTZA

Kultur Egunak urriaren 31tik azaroaren 3a bitarte izanen dira

Azaroaren 1ean Baserritarren Egunaren edizio berria egingen da

Nerea ALTZURI

Udazkena izanik, eta urteroko ohiturari hutsik egin gabe, hemendik bi astera hasiko dira kultur egunak. Urriaren 31tik azaroaren 3a esparru ezberdinetako ekimenak izanen dira, Euskara Mankomunitateak Udalaren laguntzarekin antolatutakoak. Ondoko lerroetan adin eta gustu guztietako jendea-ri bideratutako egitaraua bildu dugu:



ARTXIBOA

Aurten ere herriko produktuen salmenta eta erakusketa izanen da frontoian, Baserritarren Egunean.

Udazkenean sarturik

Urriaren sarturik urteroko ekintzak eta egunerokoak izaten dira sasoi honetan. Eskolako umeak egun osoko jardunean ari dira, jantoki zerbitzua ere ohi bezala martxan jarritz. Bertalde, iazko zortzi emakumeek eskulan ikastaroa abiatu zuten asteartean. Horrela, 17:30etik 19:30era Pui irakaslearekin etxerako

eta ingurueterako erabilgarriak eta hornigarriak diren elementuak gauzatzen ariko dira.

Aipatzekoa da, baita ere, uso eta basurde ehi-zako denboraldietan gaudela. Usoetarako zaletasuna haundiagoa bada ere, basurdeetan ibiltzen denik ere bada. Uso ehizarako denboraldia izanik, herritar aunitz mendira joaten da zaletasunaz gozatzera, afizio haundiago edo tti-

kiago izan, beti da aitzakia polita mendian egoteko, lagunartean ondo batzuk biltzen, gosaltzen... Ekaitza eta Bagatxarren guztira 60 ehiza postu daude: Ekaitzan 28 ehiza-setoetan hiruko taldeak izaten dira, eta Bagatxarren, berriz, 32 postuetan bina-ka banatzen dira. Oporrak pasatzeko etxolak ere badaude mendi batean zein bertzean: Ekaitzan sei txabola daude:

Primitivoren, Xalbadorren, Etxebesteren, Tomasen eta Aranibarko eta erdiko txabolak. Eta Ollargatan Girizia, Arralde, Gure Ametsa eta Borda txabolak. Denboraldian bete-betean daude ehiztariak, ortzian begiak tinko paratuak dituzte. Azken urteetan uso pasa gutti ikusi dira, ea aurten nola joaten den sasoia.

Herriko eraikinak garbitzeko langilea behar da

Urteetan herriko eraikinak garbitzeaz arduratu den Rosario Agestak baja hartu ondotik, garbitzaile berria kontratatzeko lehiaketa ireki du Udalak. Deialdia kontsulta, Herriko Etxea eta eskola garbitzeko egin da, eta 2007ko abendurako eta 2008rako izanen litzateke. Interesatuak azaroaren 2ko 14:30ak baino lehen aurkeztu beharko ditu proposamenak udal-letxean. Baldintzak ere bertan azalduko dira.

Urriak 31, asteazkena
17:00etan *Zine eman-kizuna* eskolan.

Azaroak 1, ortzeguna
Baserritarren Eguna.

Azaroak 2, ortziral
17:00etan *karaokea* Iñigo Etxepareren eskutik, eskolan.

21:00etan *bertso afaria* Ekaitza elkarte-
an, Fredi eta Xabier
Paiarekin.

Azaroak 3, larunbata
20:00etan *fanfarrea*
00:00etan *dantzaldia*
Herriko Etxeko
gorapean.

BIZIKLETEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

MATER-BIKE

Kantfonberri, 1 • BERA
948 63 12 18

Tel:
948 634 179

ARANTZA

ATERPE
ALBERGIA

ALBERGIA • JATETXEA

BOITZIRUDI
boitzirudi@telefonica.net

KARTELAK • KAMISETAK • BISERRAK • TOSATRIDAK (Nahi duzun neurri - ibaitzurrekin)
FOTOKOPIA DIGITALAK, KOLoretan, TINTU BELETAN • PLANOAK
ENKJADERNAZIOAK • PLASTIKAZIOAK • PEPERTIGIA • BULEGO MATERIALA
BIZIENJU GRAFIKIA • LOGOTIPOAK • ERROTILAK • IMPRENTA

Ezteara, 26. Eskaineko Behe D • BERA • Tel-Fax: 948 631 521

ZJ

Zalain
jatekua - hostala

14 logela bainu
eta TBrekin

Zalain auzoa 1/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

KIROLA

Xabier Telletxea igantziarrak irabazi du Espainiako Mendi Bizikleta Opena


Mitxel Aginaga Nafarroako Mendi Duatloi txapelketan txapeldun izan da hamargarrenez

ttipi-ttapa

Irailaren 30ean jokatu zen Galdakaon Espainiako Mendi Bizikleta Openeko azken proba eta Xabier Telletxea igantziarra hirugarren izan zen. Halere, aitzinetik abantaila koxkorra zuela eta sailkapen orokorrean bigarren izan dena azken proban seigarren izan zela kontuan hartuz, nahiko garaipen erraza izan zen Telletxearentzat. Uztai-

lean bertze garaipen bat lortu zuen, Espainiako mendi bizikleta jautsiera irabazita. Espainiako Opena, berriz, bigarren aldiz irabazi du, duela bi urte ere bera izan baitzen garaile. Azaroan Katalunian, Open Guak lehiaketarako baliagarria den bertze proba batean parte hartuko du. Honetan ere lehen postuan dago eta irabazitzeko, urte ezinhobearen berrituzko luke.

Egun berean, Mitxel Aginaga narbartearrak 10. aldiz irabazi zuen Ororbian Nafarroako Mendi Duatloi txapelketa. Beharbada orain arteko garaipenik zailena izan zen Aginagarentzat, beti ondoan izan baitzen Juan Carlos Nieva. Azkenean, Aginagak 1:06:36ean amaitu zuen proba. Garaipen honen ondotik hilabetezko atsedenaldia hartuko du narbartearrak.



ARTXIBOA

Xabier Telletxeak —ezkerrean— bi aldiz irabazi du Espainiako Mendi Bizikleta Opena. Mitxel Aginagak, berriz, —eskuinean— hamargarrenez jauntzi du Nafarroako Mendi Duatloi txapelketako txapela. Ez dira emaitza kaskarrak, ez horixe!

ARANTZAKO KULTUR EGUNAK

Urriaren 31, asteazkena

Ordua: 17:00etan

Tokia: Arantzako Eskolan
Zine emankizuna.

Azaroaren 1a, ortzeguna

Baserritarraren eguna.

Azaroaren 2a, ortzirala

Ordua: 17:00etan

Tokia: Arantzako Eskolan
Karaokea. Iñigo Etxepare.

Azaroaren 2a, ortzirala

Ordua: 21:00etan

Tokia: Ekaitza elkartearen
Bertso-afaria.
Fredri Paia eta Xabier Paiarekin.

Azaroaren 3a, larunbata

Ordua: 20:00etan

Fanfarrea.

Azaroaren 3a, larunbata

Ordua: 24:00etan

Tokia: Herriko Etxeko gorapean.
Dantzaldia.

ANTOLATZANILEA
ARANTZAKO
EUSKARABATZORDEA
LAGUNTZILEA
ARANTZAKO UROLA

SUNBILLA

Beheko eskolako haurrek atsedenaldirik non jostatu izanen dute hemendik aitzinera

Udalak jarritako materialarekin haurren gurasoek auzolanean ataripea egin dute

Jaione OTXANDORENA

Udalak jarritako materialarekin eta auzolanean eskolako haurren gurasoek egindako lanarekin, duela pare bat aste bukatu ziren beheko eskolako portxea edo ataripea eraikitze-ko lanak.

Azken ukituak Udaleko langileak egin dituzte eta dagoeneko 3, 4 eta 5 urteko haurrak atsedenaldirik gairan bertan egoten dira. Portxea eraiki bitartean, goiko pisuan ere zenbait moldaketa egiteko aprobe-txatu zuten gurasoek: solairu zaharra altxatu eta berria jarri, garbiket-ak egin...

Eskulan ikastaroa

Berriro ere martxan jarriko da eskulan ikas-

taroa. Ortzegunero izanen da, Udaletxeko hirugarren solairuan. Hiru orduko ikastaroak izanen dira, goizeko 9:30etik, eguerdiko 12:30 arte. Horrela bada, ikastaro honetan izena eman nahi duenak honako telefono honetara deitu beharko du lehenbailehen: 626447195 (Eduerne)

Berriro ere istripua

Aitzineko ttipi-tpaparen alean erran bage-nuen ere, zoritxarrez berriro ere berri bera errepikatu beharrean gaude. Irailaren 30ean, berriro ere istripua izan zen herrira sartzeko roton-dan edo biribilgunean. Behar adina alditan errepikatuko dugu egoera hau salatze-ko!



ARGAZKIA: AGURTXANE ZUBIETA

Antrotokiko gazteek bazkaria egin zuten

Duela sei urtetik ona, herriko gazteek frontoian dagoen taberna hartzen dute herriko bestetarako. Egun horietan lortzen duten diruarekin, herrian zenbait ekitaldi antolatze-ko asmoa izaten dute. Joan den urtean, Korrikako kilometro bat ere erosi zuten, baina lehenik eta behin, tabernan lan egin duten guztiak elkartu eta bazkaria egiten dute. Aurtengo bazkaria urriaren 6an egin zuten, Itturburu ostatuan, eta ondotik elkarrekin pasa zuten arratsaldea giro ederrean. Hona hemen argazkia horren adibide.

Lizun
GAZTANDEGIA

Etxe Ardi Gazta

Petxenekoborda - SUNBILLA - Tel: 948 450 862

Belarra
jaketxea

948 450 306

Ameztiak karrika
DONEZTEBE

ttipi
tpapa

☎ (0034) 948 635458

APARAN, S.A.
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

Iñaki Alzujet
margoak

Ferrosak - Barmatibak
Dekorazioak (estuko, bolatzen...)
Pinturak - Lakak eta barnizakua kalitate

Kamilea Etxe - Lantzar Auzo - 31711 URDANZUBI
Telefono: 659 862 417

egoi bardot obregozo arkitektoa

679649789 elizondo - braulio inarte 33, 1º D - 31700
948210963 iruñea - paulino caballero 15, 1º A - 31002

ITUREN

Aurtizko ostatuak berriz itxi ditu ateak

Azkeneko maisterrek iazko San Martinetan hartu zuten

Arkaitz MINDEGIA

San Martin bestetarako hilabete eskaxa falta denean, berriz ere ateak itxi ditu Aurtizko Ostatuak. Azken urte hauetan ez dugu suerte haundiegirik ostatuarekin eta hartu bezain laster itxi egiten da. Ea hurrengoan zorte gehiago dagoen, eta ea bestetan zer gertatzen den.

San Martinak gainean

Dagoeneko hasiak dira Aurtizko gazteak herriko bestak prestatzen.

Bi bilera egin ondotik egitaraua prest dago eta orain azken ukitu eta deiak egiten ari dira. Aurtien azaroaren 8tik 11ra ospatuko dira.

Alkateordeak izendatuak

Miguel Angel Petrirena alkateak legealdi berriko lehendakariordeak izendatu ditu: Jose Iparragirre izanen da lehenbiziko lehendakariordea eta, Jose Maria Gorosterrazi bigarrena. Biek ere lehen alkate izandakoak dira.



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

Ikastaroak puri purian

Arrakasta handia izan dute aurten ere abiatu diren ikastaroek. Dantza ikastaroan denetara 60 ikasle inguruk eman dute izena, bortz taldetan banatuak adinaren arabera. Azaroa erdialdetik aitzinera seigarren talde bat hasiko da. Azken talde hau plazan dantzatu nahi ez dutenentzat da. Trikitixa eta pandereta ikastaroak ere urtetik urtera arrakastatsuagoak izaten ari dira. Hasiera batean panderoa baldin bazen bietan errege, aurten gehienak trikitixa ikasten ari dira. Taichi ikastaroa, berriz, astean bitan ematen da, astelehena eta asteazkenetan, eta bi taldetan banatua, 18:00etan eta 20:00etan, denetara 25 lagun inguruk eman dute izena.



IKASTAROAK

BERAn Windows Vista eta Office 2007 hasierako ikastaroak 2007ko azarotik aintzinera

Informazioa eta izen ematea **BEEP** BERA

Tfnoak: 948 630 132 / 948 630 799 • E-posta: bbera@beep.es

MALERREKA

Ttipi-Ttapa Telebista 32. kanalean ikusten da orain Malerrekan

Antena partikularra dutenek telebista bersintonizatu beharko dute, eta antena kolektiboa dutenek anplifikadorea aldatu

ttipi-ttapa

Hemendik aitzinera, Ttipi-Ttapa ikusteko telebista aparatuak bersintonizatu egin behar dira 32. kanalean Malerrekako etxe guztietan. Aldaketa hau egitera behartuta daude jorandak astean Nafarroako bi telebista kate autonomikoei, Canal 4 eta Canal 6, Malerrekan orduarte Ttipi-Ttapa telebistak erabiltzen zuten frekuentzia erabiltzen hasi zirenetik.

PISU ETXEETAN ANPLIFIKADOREAK ALDATU

Antena kolektiboak ez dituzten etxeetan nahikoa izanen da norbere etxeko telebista egokitzearekin. Horrela

bada, Ttipi-Ttaparen frekuentzia berria bilatzeko lana, normalki, norberak egiten ahal du. Trebetasun eta pazientzia pixka bat hartuz gero, telebista aparatuak bilatuko ditu etxeko antenatik hartzen diren frekuentziak, eta frekuentzia berriak bilatuak direnean, telebistako memorian gordetzea baino ez zaigu geldituko.

Antena kolektiboa duten etxeetan, ordea, nahitaezkoa izanen da anplifikadore berria jartzea. Horretarako, antena instalatzaileari deitu beharko zaio aholkua eta aurrekontua eskatuz: Bortziriak, SL 948631091; Lizardi 670415720.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Elgorriagako Onddo eta Zizen Kofradiak kide berriak
Elgorriagako Onddo eta Zizen Kofradiak irailaren 30ean egin zuten bere urteroko besta haundia, eta hala, Kofradiako lau ohorezko kide berriak izendatu ziren: Abel Barriola pilotaria; Josep Mariné i Grau Industria Ministerioi Batzordeko kidea eta Espainiako Udalerri eta Kontzejuen Federazioko Turismo kontseilukoa, Tarragonako Diputazioko lehendakaria eta bere herriko alkatea izandakoa; M^a Jesus Arnada, Nafarroako Ararteko ohia eta orain M^a Teresa Fernandez de la Vega Espainiako Gobernuako presidenteordea; eta Gregorio Tiberio Lopez, Bideko Andre Mari Ospitaleko medikua. Irailaren 30eko ekitaldian, Kofradiak ehun bat kilo onddo beltz eskaini zizkien jendeari dastatzeko. Herri kiroletan ere aritu ziren, Zubietako joaldunak ere han ibili ziren, eta Arangurengo Abesbatzak emaldia eskaini zuen. 90 lagunek bazkaria egin zuten ondotik.

Bisita gidatuak Donamariako dorrera

Donamariako Jauregia dorrera bista gidatuak antolatu dituzte urri-

tik abendura bitarte. Maite Urroz Oartzabal teknikariak eskainiko ditu eta 12:30ean eta 17:30ean abiatuko dira. Bisita egiteko interesa-

tua egonez gero, Bertizko Partzuergo Turistikora (948 592323) edo Maite Urrozren telefonora (699212226) deitu beharko da.

Grú T n t r T l
I C H É
 M l r r k S.L.

2 UK ZE ITZU
 EIL T KI N ET ETXE N

T SL KI U E, N STI ET
 I U N G S IT LET TI KE ZEIN HE IET

L E K, HIL T K, ESKEL K,
 E USKET K ET ZE ITZU S G I K

T S N J SE EIL T KI	3 7
n zt S N E EIL T KI	3 7
EI z n P N E I ZI N T N T I ZI N	5 1 5
L tz L I T Z K EIL T KI	3 7
L s k L I S K K T N T I	3 7

GOIZUETA

Mendialdeko Agenda 21 lanean hasi da dagoeneko

Egitasmoa iragartzeko logotipo eta lema lehiaketa ere abian da

Esteban AROTZENA

Goizueta, Araitz, Arano, Areso, Betelu, Larrun, Leitza eta Lekunberriko udalerrien egoerari buruzko diagnosis egin aurrena, eta ondorengo bost-hamar urteetan garapen plan bat osatzea da Mendialdeko Agenda 21 proiektuaren helburua.

Aipatutako diagnosi-rako inkestak egin dira herri guztietan. Gureari dagokionez, 41 lagunei luzatu zitzaizkien galdeketa eta 39 erantzun jaso ziren. Herriaren hiru arazo edo gabezia haundienak aipatu behar zituen bakoitzak eta emaitzek ez dute uste-

kabekorik eman, etxebizitza eta lan faltarena, eta karreteraren egoera baitira herritar gehienek ustez Goizuetaren arazo larrienak. Kultur ekintza gehiago, ekonomia bultzatzeko ekimenak, garraio publikoaren maiztasuna, edo eguneko zentroaren beharra ere aipatzen dira inkestan, besteak beste.

Urriaren 1ean Bete-lun hasitako bileren zikloa hurrengo urteko martxoaren 8a arte luzatuko da, hileroko bat eta bailarako herri ezberdinetan eginez bakoitza. Cederna-Ga-



Agenda 21 proiektuarekin herriaren premia haundienak zein diren ikertu, eta lehentasunezko proiektuak zehaztuko dira.

ARTXIBOA

ralur Erakundea, Rafael Tortajada Nafarroako Gobernuako ordezkaria, Terra-Prometea lantaldia eta zortzi udaletako kargu publikoek gain, indar eta garrantzi handia izanen dute bilertan gai ezberdinetako teknikariek, aguaziletatik hasi eta arkitektu, mediku, idazkari edo mendizainetatik igaroz. Gonbidatuak egonen dira,

baita ere, herrietako erakunde eta mota guztietako taldeetako ardura-dunak (kultura, kirola, komunikabideak, gizarte zerbitzuak, euskara...).

Proiektuaren irudia izanen den logotipo eta lemarren lehiaketa ere martxan du Agenda 21ek. Saria 300 eurokoa da eta lanak aurkezteko epea urriaren

bukaera artekoa. Gainerako argibideak Herriko Etxean emanen zaizkie interesatuei.

Mus txapelketak

Hamabostero, ostiralean, mus txapelketak antolatuko asmoa dute Juanaren Etxean. Lehenbizikoa hilaren 19an jokatu da 22:30ean hasita.

ARESO

Internet zerbitzua hobetzeko bigarren Wi-Fi antena jarri dute

Mantenimendu gastuak direla eta, kuota paratu ala ez aztertzen ari da Udala

Juana Mari SAIZAR

Orain dela bi hilabete Wi-Fi Interneteko antena jarri zuten udal-etxean etxe guztietara Interneten seinalea ailega zedin. Hala ere, antena horrek arazo asko ekarri ditu. Izan ere, etxeetan Internetek ez zuten egiten eta bi hilabeteren buruan, hau da, orain dela bi aste, be-

rriro etorri eta konpon-tzen saiatu dira. Azkenean, jarria zegoen seinalea nahikoa ez eta elizakako, kanpandorrean beste antena jarri dute abiadura handiagoarekin. Horren ondorioz, Udala kuota txiki bat jartzekotan dabil mantentimendu gastuetarako, hasieran doan izango zela pentsatu bazuen ere.

Ehiza postuen enkantea

laz bezala, aurten ere ehiza postuek diru gutxi utzi dute herriarentzako. Lehenengo enkantera jende gutxi etorri zen eta bigarrenean ere ez zen askorik agertu. Aurten aurreko urteetakoaren erdia jaso da eta gehienera 3 postu saldu gabe geratu dira.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Duela bi aste 11 umek eman zioten hasiera ludotekako ikasturteari. laz bezala, Nahiara begiralearekin, astea bitan egoten dira 17:00etatik 18:00etara.

Kirol jarduerak

Kirol koordinatzaileak urte honetarako ekintzak prestatu ditu dagoeneko: gimnasia helduentzako eta psiko-

motrizitatea 3, 4 eta 5 urte dituztenentzako. Hauetaz aparte, Guraso elkarteak dantza, ingeleza eta ludoketa jarri ditu martxan.

LEITZA

Herriko kontu zaharrak entzunen dira Karrape Irratiaren denboraldi berrian

Beste berrikuntzen artean, Xirika aldizkariaren eta Beleixe irratiaren kolaborazioak

Joseba URKIOLA

Udako saio bereziaren ostean, Karrape Irratiak urriaren 1ean ekin zion denboraldi berriari. Arantxa Iparragirre eta Unai Sagastibeltzak ekoizten duten irrati lokala, aurtengoan ere, 107.8 FMko entzulegoa entretenitzeko gogoz heldu da. Betiko legez, Karrape Irratiko egun bakoitzak nortasun berezia izanen du.

Hasi berria den denboraldi honetan, goizeroko magazinak lehenengo urteko bide bertsutik jarraituko du. Saioak eskainiko dituen produktu asko aurreko ikasturtean entzungai zeudenak izanen baitira. Dena den, berrikuntza batzuk izanen dira programazioan. Aipagarrien artean, Xirika gazte aldizkariaren asteroko kolaborazio berezia, Sakanako Belaixe Irratitik zuzenduriko berriak eta Leitzako kontu zein gaitegi zaharrak ardatz edukiko dituen saio berritzaila.

Juan M^a Barriola mendiko zinegotzi delegatu

Irailaren 28ko osoko bilkuran, Juan Maria Barriola leitzarra mendiko zinegotzi delegatu izen-

datu zuten. Ekainaren 30ean erabaki ziren zinegotzi bakoitzak datozen lau urteetan burutu beharreko betebeharrak, baina mendiko ordezkariari zegokiona zehaztu gabe geratu zen. Hemendik aurrera, beraz, Barriola izanen

da esparrua horren inguruko erabakiak hartzeko arduraduna.

Horrez gain, bilkurak bestelako erabaki batzuk utzi zituen mahai-gainean. Batetik hilerria zabaltzeko baimena lortu zuten. Bestetik, bereriz, EAE alderdiak irai-

laren 9an Donostiako Alde Zaharrean izandako gertakarien inguruan aurkeztutako mozioa onartu zen. Eskerra honetan, Estropada egunean Donostiara joandako Ertzaintzak bi leitzar jipoitu eta pertsona bat atxilotu zuela

nabarmetzen da. Azkenik aipatu, Zabalo alkateak Nafarroako Gobernua aurrera darman Hiri-antolamendua edo POT delakoaren aurkezpena egin zuela. Leitza POT 2 Atlantikoa izendatutako gunean zegoela argitu zuen.



ARGAZKIA: SAGRARIO LASARTE

Joan da Eskuz Binakako III. Pilota Txapelketa

Irailaren 30ean jokatu ziren Leitzako Eskuz Binakako III. Txapelketaren finalak. Amazabal pilotalekua kolkoraino bete ez bazen ere, jende asko gerturatu zen. Sei final jokatu ziren eta guztira Euskal Herriko hainbat txokotatik gerturatutako 24 protagonista ikusteko parada egon zen. Leitzar kirolariei dagokienez, Ander Eskudero benjaminen mailan aritu zen, Iñaki Saralegi hasi berrietan eta kadeteetan Jon Jaunarena. Ekitaldi honen amaierarekin, Leitzako Pilota Eskolak bere denboraldiari etenaldia eman dio. Aurtengoa gutxi bezalakoa izan da eta heldu denari behar bezala adarretatik hartu ahal izateko, atsedenean dira. Besteak beste, Nafarroako eta Euskal Herriko Herriarteko txapelak ekarri dituzte herrira.

Giro ona Kaskagorren Penthlatoian

Irailaren 29an egin zen XVIII. Kaskagorren Penthlatoia. Aurtengoan ere asko izan ziren, Donostiako Ondarreta hondartzan hasi eta gaueko ordu txikietan leitzaldean amaitu zen lagunarteko frogan parte hartu zutenak; antolatzaileen arabera, 105 lagun, gehienak, Leitza eta donostialdekoak. Lehen hiru betebeharren ostean, helmugara iristen lehena Julen Sagastibeltza leitzar gaztea izan zen. Laugarren eta bosgarren frogan ondoren berriz, denak izan ziren garaile. Ez baita ahaztu behar, Kaskagorren Penthlatoi berezia, lagunartean egun eder bat igarotzea helburu duen kirol eta aisialdiz hornitutako jardunaldia dela.

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERMIZATZEAK
ESTALDURA OROKORRAK
Bera - Tfnoak: 948 630 735 - 407 406 781

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa - saneamendua - gasa
Tfnoa: 948 510 086 - 948 510 156
Faxa: 948 610 856
LEITZA

t tipi
tapa
(0034) 948 635458

KULTURA

Nafarroako Euskal Kantu Txapelketa azaroaren 3an hasiko da Elizondon

Izena emateko epea urriaren 26an akautuko da

ttipi-ttapa

Euskal Kantuzaleen Elkartearen ekimenez, laster hasiko da Nafarroako Euskal Kantu Txapelketa. Zehazki azaroaren 3an abiatuko da eta Elizondoko Lur dantzalekuan izanenda hori. Horretarako, dagoeneko irekia dago izena emateko epea. Urriaren 26a bitarte 948 141812 telefono zenbakian, *nafarroagraia@kantuzale.nethelbide* elektronikoa eman beharko da izena. Ho-

rrez gain, Nafarroako edozein irratia euskaldunetan ere ematen ahal izanen da izena, gure inguruan, Xorroxin Irratian edo Leitzako Karrape Irratian.

Aipatu bezala, Lur aretoan irekiko ditu atak txapelketak, azaroaren 3an, 18:00etan. Bigarren saioa, berriz, Burlatako Kultur Etxean egiten da, azaroaren 9an, ortzirala, 19:00etan.

15 urtetik goitiko edozeinek har dezake parte txapelketan, kantari



ARTXIBOA

15 urtetik goitiko edozeinentzat dago zabalik txapelketa.

amateurrek beti ere, eta ez salgai dauden grabaketak ekoiztu dituztenak. Bakarka, bikotetan edo 3 eta 10 lagun arteko taldeetan parte hartu daiteke.

Partehartzaileen mailaren gorakada dela eta, partehartzaile berriei beraien meritua go-

gorarazteko, aurrean ere parte hartzen duten kantariak *Berrien Maila* osatuko dute, eta sari berezia izanen dute. Taldeen parte-hartzeari ere bulkada berezia eman nahi dio Kantuzale Elkarteak, Euskal Kantua bizitzeko eta ulertzeko dagoen modurik ede-

rrenetakoa iruditzen zaiolako.

Kategoria eta modalitate bakoitzeko lehen dabitzen dira sariak. Sari bereziak ere izanen dira, hala nola, sormena saritzeko, partaide berriari eman den berte bat eta gisakoak.

ETXALARKO KULTUR EGUNAK

Urriaren 25a, ortzeguna

Ordua: 20:00etan

Tokia: Kultur Etxean

Hitzaldia: Konposta: Zer da eta nola egiten da?

Hizlaria: Imanol Azpiroz (Usurbilgo, Udaleko zinegotzia eta San Markoseko Mankomunitateko lehendakariordea)



Urriaren 27a, larunbata

Ordua: 21:00etan

Tokia: Herriko Ostatuan

Bertso afaria. Errebantxa

Lesaka vs. Zarautz



Urriaren 31, asteazkena

Ordua: 12:45ean

Tokia: Kultur Etxean

Antzerkia: Ino, ino, ino badator Bonbardino

Ane Monna, Oskola eta Karramarroi



OHARRA:

Afariarako bartelak salgai izanen dira aldeiz aurretik Herriko Ostatuan eta Elutsan



Antolatzailea:
Etxalarko Euskara Batzordea



Laguntzailea:
Etxalarko udala

BAZTAN

Xorroxin irratiak egoitza berria estreinatu du Elizondoko Aita Donostia Karrikan

Heldu den urtean bazkidetza kanpaina berria martxan paratzeko asmoa dute

Maite OTEIZA

26 urterekin Xorroxin irratiak behin betiko egoitza berria estreinatu du. Erratzuarra sortzez (1981), Elizondoko Fortenea, Saskaitz plaza, Iruritako Arribillaga, Elizondoko San Frantzisko Xabier ikastetxeko etxe-eskolan ibili da, eta joan den urriaren 12az geroztik Aita Donostia Karrikan, lehenagoko Albaitaritza enpresak zuen lokalean dago. Leku aldaketak zirela-eta, lan aunitzeko egunak izan dituzte langileek, material eta altzari guztiak bildu eta urduritasun eta ilusioz beterik egoitza berria egin baitute salto. Xorroxin zintzo-zintzo egunero uhinetan egonda, nahiz eta tarteka etxea ipurdiz goiti izan.



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

Nerea eta Mari Karmen Xorroxineko egoitza berrian, oraindik obratan.

Heldu den urtean, bazkidetza kanpaina berria abiatzeko asmoa dute gastuei aurre egiteko. Beraz, erne denak kanpainarekin. Bidebaterik, zorionak Xorroxin etxe berriarengatik.

Sutea Arizkungo elkartean

Berriki susto ederra hartu zuten Arizkungo elkartean. Aspalditik Herriko Etxea denean hobe lanetan ari dira.

Kanpoko obrak akitzekin barnekoari ekin diote. Lagun bat lanean zegoen bitartean, kalefakzio kaldera martxan paratu zuten, piztuta utziz. Baina bat-batean su hartu zuen. Bertan

zegoenak Oronoz-Mugairiko suhiltzaileei deitu zien. Beraiek itzaltzeko gai ez zirela ikusita, bere laguntzarekin suarekin akitzea lortu zuten. Bertan zegoen pertsona Elizondoko larrialdi zerbitzuetara eramane behar izan zuten, arnastutako kearengatik. Kalteak materialak izan ziren, berria paratua zuten eskailerak eta eskalaburua.

Batukada topaketa

Duela bi aste, Bozateko Lamiarritan, batukada topaketa egin zen. Ortziraletik igandera, sei taldek hartu zuten parte: Donostia, Txantrea, Iruña, Zubiri, Gasteiz eta Baztangoek. Arizkun ez ezik, Elizondon ere ibili ziren kaleak alaten.

Mailposta Buzoneos
Leizola bidea,9 · DONEZTEBE · 948 592 313

- Inprimategia
- Publizitatea
- Diseinu grafikoa

txokoberri
Aluminioan espezializatuak

- Aroztegi Metalikoa (Ielhoak, ateak, barandak, ...)
- Parket

Eneko eta Alfredo / Donamaria / Nafarroa Tel: 618 661 924

HERBIBO ETXEBE
EDZANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE

T: 0559543519
Maïxan eta Véronique

KADA

ERRETEGIA ORDOKI LIKOREAK
Parrillan egindako haragi eta arrainak
Tel: 948 453 413 Fax: 948 453 378 · ARIZKUN

Okindegia Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Especialitatea parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen errea, goxo goxoa!

Ordoki Industrialdea
Tfnoa: 948 453 403
31713 ARIZKUN

BAZTAN

Erdizen eraiki nahi den harrobiak eztabaida sortu du urriko Batzar Orokorrean

Proiektuak ingurumen txostena gaindituz gero obrak baimentzea proposatu du NaBaik

ttipi-ttapa

Magna enpresak Erdizen eraiki nahi duen harrobia dela-eta, eztabaidak bizi bizi segitzen du Baztanen. Baztango Batzar Orokorra urriaren 1ean bildu zen urtean lautan egiten duen bilkura egiteko eta, bertzeak bertze, harrobiaren gaia izan zuen mahai-gainean. Baztango Udalean gehiengo duen NaBai alderdiak Magnesitas de Navarra SA enpresak egindako lanak hasteko eskaerari erantzutea proposatu zuen, Udalak eta Junta Generalak harrobiaren inguruko bere jarrera azaldu zezaten. Hala, proiektuari buruzko Ingurumen Inpaktuaren deklarazioa izeneko ikerketak aterako litzuzkeen ondorioen arabera jokatzeara proposatu zuen NaBaik. Ingurumen txostenak proiektu-

tua onartzen badu, obrak egiteko baimenak eta lizentziak emanen direla argitu zuen Virginia Aleman Baztango alkateak. Hori egitea Udalaren eta Junta Generalaren ardura dela gaineratu zuen. Batzar aretoan bildutako Erdiz Bizirik plataformako eta ezker abertzaleko kideen artean, ordea, protestak eragin zituen alkateak errandakoak eta harrobiaren aurkako euren jarrera berretsi zuten. Plataformaren hitzetan, NaBaik ez zuen ordura arte bere asmoa erakutsi, eta tarterik utzi gabe bozkatu nahi izan zuen. Hala, proiektuaren inguruko inongo akordiorik gabe amaitu zen bilera. Baztango ANV-EAE ohar baten bidez, Baztango NaBai taldeak «*baztandarguztiei iruzur egiteko saikera egin zuela*» salatu



ARTXIBOA

Erdizen eraiki nahi den harrobiak eztabaida bizi-bizia sortu du Baztanen.

zuen, eta hiru eskaera luzatu zizkieten NaBai eta UPNri: «*beren alderdi interesak alde batera utzi ditzaten, Baztango herritarren iritzia aditu eta errespetatu dezaten eta baztandarren alde lan egin dezaten*». Guztia, «*Erdizek Bizirik iraun dezan*».

Baztango EAJ-PNVk, bertze ohar baten bidez, protesta egin zutenen «*jarrera lotsagarria*» izan zela salatu zuen, eta «*irainak eta akusazio faltsuak*» egin zirela kritikatu. EAJ-PNVk Virginia Aleman alkateari bere babesa eskaini zion, eta plenoan duintasunez jokatzeagatik zoriondu.

Magnaren proiektua oraindik ez dute Nafarroako Gobernuaren In-

gurumen Departamentuan aurkeztu, eta Udalak, bere aldetik, herritarren parte-hartzea bultzatzeko egitasmoa abian paratuko duela erran zuen Virginiak, jendeari informazioa eman eta kexak biltzeko.

HERRI GALDEKETA EGITEKO PROPOSAMENA

Joan den urriaren 5ean, Erdiz Bizirik plataformak Arizkunenean deituriko batzarrera jende aunitz hurbildu zen. Batzar hau Batzar Orokorra baino lehen egitekoa zen, baina Batzar Orokorrean gertatutakoa ikusirik, interes haundiagoa zekarren.

Batzarrean, azken asteetan gertatutakoa azaldu zuten, beren arrazoiak eta etorkizu-

neko jarrera zein izanen ziren argituz.

Batzar Orokorra egin eta biharamunean, Nafarroako bi egunkaritan argitaratutako informazioari aurre egiteko ohar bat kaleratu zuten, bi egunkari horietan «*zentsuratuak*» daudelakotz.

Erdiz Bizirik-ek herri galdeketa erabaki aldeko apostu garbia egin zuen: «*baztandarrok erabaki dezagun harrobia bai ala ez, herri galdeketa- ren bidez. Erdiz gurea delakotz, eta ez dezaten erabaki hori Iruñean edo hemendik kanpo hartu*». Aldi berean, NaBai alderdiaren jorkaera eta komunikabideetan egiten ari diren informazio erabilera salatu zuten plataformakoek.

Ark_b arkitektura bulegoa

Erakuntza
Hirigintza
Udal-aholkularitza

Celia Lana Ronz
Huarte Gotzal 7 - 31880 Leitza
645008473 tel

Gierresenea

OSTATU · JATETXEA

Jaki tipikoak · Etxeko giroa

Iturriatz auzoa - Tfnoa: 948 592 043
ORONÓZ · MUGAIRI

ROSA BELZUNEGI

PSIKOANALISTA

Kontsultarako eskatu orduz

☎ 948 272011 (IRUÑA)
☎ 948 580975
Jame Unita 42-2.D - ELZONDOKI

SOULE

hileta artea

Tfnoa. 948 453 444
Mug.: 629 659 583
ARIZKUN

BURKAITZEA

ostatu
erretegia

Zugiteramundiko bidia, 3 km
945 599 280 · URDAZUBI

FERIAK **ELIZONDO**

urriak 26 eta 27



ADATSA
ileapaindegia
Braulio Iriarte Luruzena, 50
Tfnos: 948 452467
ELIZONDO

ESKISAROI
JATETXEA
Jaime Urrutia • Tfnos: 948 580 013
ELIZONDO

Iris
LOREDENDA - Elizondo
Naturala: Jaime Urrutia, 19 - Tfnos: 948 58 10 53
Artifiziala: Jaime Urrutia, 21 - Tfnos: 948 58 10 53

ANTXITONEA
Trinketea
Hotela - Trinketea
Tel: 948 581 807
948 581 833
Braulio Iriarte karrika • ELIZONDO
antxitonea@terra.es

Baztan
Panifikadora
eguneroko ogia
Ederi banatzailea:
Coca-cola, San Miguel
Insalus, Gurutzeta sagardoa
Ardo berexiak...
Berekoetak Gotzaila, 3 - ELIZONDO

arkitektoak
ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA
ETXEBITZA PROIEKTOAK
URBANIZAZIO PROIEKTOAK
ETXE BERRITZEAK
NABEAK
KONSULTAK
INFOGRAFIA: 3D
ELIZONDO • Santiago, 54 behea • 948 581 931
BERA • Eztegarra, 8 behea • 948 625 232

ABELTZAINZA SEKTOREA INDARTZEKO LARRIALDIRAKO PLAN BEREZIA NAFARROAN

Krisia garaitzeko, laguntzak eskasak direla kritikatu du EHNEk



Abeltzaintza krisian dago. Sindikatuek, baserritarrek, politikoeek... Denek argi dute abeltzaintza egoera «larrian» dagoela. Neurri tikiagoan edo haundiagoan, abeltzaintzako alor guztiei eragiten die, gainera. Eta krisiaren gibelean, produktuen garestitzea, base-rietarako abeltzainek erosten dituzten gaiak nabarmen garestitu direlako. Baserritarrek eta sindikatuek pentsuak garestitu direla salatzen dute, eta kontsumitzaileak saltokian

erosten duen azken produktua, berriz, merkatu egin dela. Horri aitzin egiteko, Nafarroako Gobernuak plan berri bat onartu du. Begoña Sanzberro Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak hilabete hasieran iragarri bezala, urriaren 9an eman zuen plan horren berri. Sanzberroren arabera, sektorea «zahartu» egin da, «ustiapen batzuk berehala desagertzeko arriskuan daude», eta plan berriari onartutako neurriek sektoreari «erantzun azkarra» emanen diote. Halere, neurriak ez du guztien adostasunik jaso. Hala, EHNE sindikatuaren ustez, arazoa nekazaritza eremuan dago, eta laguntzak ez dira nahikoak.

Nafarroako Gobernuak abeltzaintzako produktu desberdinen prezioak aztertu ondoren, erabaki du zerbait egitea, «beharrezkoa» delako. Krisiaren gibelean bi faktore daudela nabarmendu zuen kontseilari baztandarrak: batetik, produkzio gastuak goiti egin dute, batez ere pentsuak; eta bertetik, produktuen kontsumoa jaitsi da, eta horrela, azken salneurria merkatu. EHNEren arabera, «nekazaritza ereduak abeltzainek abereei jaten ematen dieten bazka eskastu du, eta ekoizle haundi eta gutti batzuen eskuetan gelditu da». Gaineratutakoaren arabera, «ekoizleak espelkulatzen ari dira eta prezioak igoarazten», eta horren ondorioz jaitsi da kontsumoa, sindikatuaren usteetan.

Plana oro har, abeltzaintzako alor guztiei begira onartu da, baina bereziki kalte-tuak diren arloei begira: ardi, untxi eta txerri hazleei zuzendua. Sindikatuak datu azpimarragarri batzuk ere kaleratu ditu: 100 zerri hazten dituen abeltzainak urteko 60.000 euroko galerak izanen ditu; 500 ardi dituenak 17.000 eurokoak; 600 untxi dituenak 27.000 eurokoak eta 50 behi dituenak 10.000 eurokoak. Gobernuaren plan bereziak 18 neurri biltzen ditu, eta 18 milioi euroko laguntzak proposatzen ditu, neurriak oraindik guztiz itxiak ez daudela adierazi arren.





Hona hemen neurri nagusiak laburbildurik.



- **Neurri fiskalak.** Abeltzaintza jarduerarako PFEZ zergaren moduluetan murrizketak, errentagarritasun errearen araberakoak.
- **Animalia hilak biltzeko zerbitzuan murrizketak.** Animalia hilak biltzeko aseguruak kontratatzeko 400.000 euroko laguntza emanen du Gobernuak, eta horrela, abeltzainek guttiago ordaindu beharko dute; kostua %26tik 13ra murriztuko da.
- **Sektore kaltetuei zuzeneko laguntzak.** Ardi, zerri eta untzien ustiapenei bideratutako laguntzak emanen dira, horiek direlako sektore kaltetuenak: ardi bakoitzeko 7 euro; zerriko 12 euro eta untzikiko lau euro. Gehienez, 3.000 euroko laguntza. Gobernuaren kalkuluaren arabera, 1.850 ustiategitara ailegatuko da laguntza. Kopurua, guztira, 2.125.000 eurokoa izanen da.
- **Mendialdeko abeltzainei laguntza osagarriak.** Abeltzaintza estentsiboko ustiategiari moduluak haundituko zaizkie. 2008tik 2013 bitarteko kanpainetan garatuko da, eta 900 abeltzainei eraginen die. Urteko 450 euro inguru gehiago emanen zaizkie. Ingurumenaren aldeko konpromisoa hartzen duten ustiategiengizako, 2008rako aurrekontuan 1,5 milioi euroko dirusaila bideratuko da.
- **Egiturazko neurriak.** Jatorri izeneko produktuak indartzeko laguntzak goiti egingen du hurrengo urtean: aurreko 400.000 euro jaso ditu Kontseilu Arautzaileak, eta 2008an bikoitza, 800.000. Nafarroako Bildotsa eta Nafarroako Aretzea jatorri izenen sustapenak %80ko finantzazio publikoa izanen dute, orain duena baino %30 gehiago (horrek 140.000 baino gehiago igoko du aurrekontua); Nafarroako Nekazaritza Kalitatearen Insitituari bideratuko laguntzak %15ean haziko dira; Nafarroako Prezio eta Merkatuen Behatokia martxan paratuko da; kontratu egonkorak bultzatuko dira; Biosergutasunean eta ingurumenaren alde inbertituko duten ustiapenei laguntza gehiago emanen zaizkie; Elikagai Artisautza bultzatuko da; ustiategiak berritzeko hobekuntza plana egin dutenei eta arazotan direnei plana berritzen utziko zaie. Egiturazko neurri hauetara bideratuko dira 18 milioitik 15.
- **Finantza erakundeak.** Nafarroako Kutxari eta Baserritarren Kutxari maileguak eskatzean baldintzak leuntzeko eskatuko zaie.

TEL 948 58 00 25

Kris

ileapaindegia

ESKIZ
INFORMATIKA ZERBITZUAK

Orain helbide berria: Murrizio eta Felix plaza ondoan
web orriak egiten ditugu

Tel: 948 581 822 - Brealio Iriarte, 4 behea - ELIZONDO

NAFARPRESS

Prentsa - Aldizkariak Liburudenda
eskola eta bulego materiala

Jekargatu zure testu-librosak
Jaime Urrutia, 43 - Tel: 948 580 902 - ELIZONDO

ELIZETXE

material
elektrikoak

Tel: 948 581 261 - Faxa: 948 452 397
Santiago, 63 (Industrialdea) - ELIZONDO

Goñi

harategia

ongi pasa feritan

Mendinueta, 3 - ELIZONDO
Tfnoa: 948 580 164

ARKUPE
goxotegi - kafetegia

- Tarta bereziak
- Etxeko izozkiak
- Arkupe txokolatea:
kakaotik egindako txokolatea

IRURITA - Tfnoa: 948 452 021
ELIZONDO - Tfnoa: 948 452 393

BAZTAN SOLASEAN



FERIAK, AZOKAK, MERKATUAK ETA SALTZAILE ANBULANTEAK

Merkatuak: nola joan, zer saldu (Almandoz)

Gero, bein karretera iñez oztik, pues, autobuse ibiltzen tzen ta... ta lenaoko autobus zarrek tar-tar-tar-tar-tar, ta ura eketan ta gañan izaten zuzten asentuek, oi, yarrite gateko. Ta, yendia gaten tzen, pues, Elizondora ta gaten tzen... merkature... zariak eta, olluakin ta ollaskuakin te merkature.

Ta Elizondon, merka... oi... ark... arkupi oi... or, arkupeain parian, da plaza ttar ortan izeten zen merkatur.

Eta antxe se... ni ere gan naiz arroltzia saltzera! Ni ere gan naiz arroltzia saltzera, bai, bai. Ya gazte-gaztia nitz... ez, gu geiena arroltziak ematen giñun.

A, bai, ta gero, oi, gasna berriz Doneztebera, gasnak... saltzera Doneztebera. Oi, gasnain... merkadue izate zen Donezteben, baño an gaten giñen zaldiek, abriek kargatu, ta aite ta biek eta benga, gasna saldu.



Baztan Solasean - Ahozko tradizioaren bildumatik hartua Elizondoko merkatur. Ana Mari Marinek utzitzako argazkia. Foto Mena Elizondok egindako argazkia.



Urrekin egina
Tartak eta pastelak
Errean egindako izozkia

Gozotegia
Malkorra®

Santiago, 15 - Tel: 948 580 061 - ELIZONDO



BICLAM
ileapaindegia

Brazulo Iriarte, 56 • ELIZONDO • Tfnoa: 948 581 874
atzakaldia

ORDUTEGIA:
asteartetik ortzagunera 9:00-13:30 / 15:30-19:30
ortziraletan 9:00-19:30 • larunbatetan 8:00-18:00
igande eta astelehenetan itxia

Baztan Solasean - Ahozko tradizioaren bildumatik hartua Elizondoko merkatua. Ana Mari Marinek utzitzako argazkia. Foto Mena Elizondok egindako argazkia.

Nola ordaindu dendan (Ziga)

Bai, te aunitzek pues e... gauze igual arroltziakin, edo... ta igual kontue re ba aunitz utzi, te... oi ere bai. (...) Karo, etzu... ezpa... etzepaitzen izeten sosik itx(e)tan, ta yan bar tzen eunero. Ha! *¡amigo!*

Eta nola pagatzen zen? edo noiz?

Bueno, fue! Segun, ola, aretxe bat saltzekin edo xerri be(t) saltzekin edo ola, orduan (irriak). Ta zemaitzuk igual paatu gabe utzi re bai...



Sansiñena
garagea

- Tailer mekanikoa
- Kotxeen salmenta eta konponketa
- Engraseak

zerbitzu ofiziala

- Agra, New Holland traktoreak

zerbitzu ofiziala

- Erabilitako nekazal tresneria

Santiago, 37 - Tfnoa-Faxa: 948 580 406
ELIZONDO

HOTEL SASKAITZ

M^a Azpilkueta karrika, 10
Tfnoa-Faxa: 948 580 488 - 948 580 615
ELIZONDO
hotelelizondo@biakizpe.net

Isa
Centro de Estético

Depilazioa • Manikura • Pedikura • Makillajea
Aurpegi eta gorputz tratamendua...

Giltxaurdi, 10 • ELIZONDO • 620 038 892

ZER GALAN 
aholkularitza

Baztanberri plaza, 6 • ELIZONDO
Tfnoa.: 948 581 300
Faxa: 948 580 648
info@zergalan-baztan.com
www.zergalan-baztan.com

Enpresendako aholkularitza
zerbitzu integrala

- Fiskala
- Kontablea
- Laborala
- Autonomoak
- Enpresa berriak sortzea

DATUCELAY

 Mekanika • Elektrizitatea
Gasen aztertzailea
ITVrako prestakuntza
Ordenagailu bidezko direkzio zuzenketa

Santiago, 88 • ELIZONDO • 948 580 225






ALTEA XL

ferreteria
Quevedo

**TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK**



Santiago 31 • ELIZONDO
Tfnoa: 948 580 234
Faxa: 948 581 210

Albaitaritza



Tfnoa.: 948 580 980 www.albaitaritza.com

Albaitack



www.albaitack.com Tfnoa.: 948 506 169

Zaldi eta zaldi-zaleentzako produktualak **Materiala**

Esoka **Eldotsu eta arretuondoko esoka** **Faxia**

Xaboi eta desinfektatzaileak **Osagarri mineralak**

Albaitari zerbitzua



ALBAIKIDE

www.albaikide.com
Tfnoa.: 902 169 169

Belardenda eta Dietetika

Natura Ekxea

- Sendabelarrak
- Produktu naturalak
- Kosmetika naturala
- Naturopatia mediku kontsulta
- Pisu-terapia
- Zapata naturalak
- Liburuak



Santiago, 47
948 580 203
ELIZONDO

**ongi
pasa
feriak**

**Pedro
GARMENDIA**

Zerbitzu Estazioa

- Gasolina eta Gasoila
- Presio bidezko garbiketa
- Garbiketa automatikoa
- Olio eta lubrikatzaile salmenta

Tfnoa: 948 580 309
ELIZONDO


Margotu



Marraztu ezagu marrazki hau eta bidali ttipi-ttapa aldizkarira. BADAKIT mahai jolasa oparituko dugu marrazki hoberenari.

ANIMATU ETA ZORTE ON.

ttipi-ttapa aldizkaria
Anduteta, 12
31760 ETXALAR



Perfumaria
Centro de Estética
Beatriz

- Gorputz-larru edo ile arazoak badituzu?
- Bertze depilazio sistema eta gorputz tratamenduekin emaitza kaxkarrak lortu dituzu?

Depilotal®

BEATRIZ ESTETIKA ZENTRUAN AZKEN TEKNIKAK AURKITUKO DITUZU 18 URTEKO ESPERIENTZIAREKIN EMAITZAK BERMATUZ,

- Fotodepilazioa, elektrikoa eta laser depilazioa
 - Fotoakne-dermatitisa-aknearen markak
 - Fotogaztetzea-gorritasuna eta orbanak
 - Gorputz tratamenduak: drenajea, masajeak, balneoterapia
- Loditasuna - zelulitisa - hanka, bular eta besoetako arazoak

ZATOZTE GURE ZENTRURA, ESKATU ORDUA ETA KONPROMEZURIK GABE ESTUDIO PERTSONALIZATU BAT EGINGO DIZUGU

Santiago 53 • ELIZONDO • T/F 948 580 283



lentzeria-etxea
Casa Cambra

Tatalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

albornozak • mantelak • edredoi nordikoak • kuxinak
ohe estalkiak • maindireak • toailak • edredoi-azal nordikoak

edredoi-azal nordikoak eta edredoietan espezialistak



Lur

urriak20
LUR D JOTAK I MAURO + NASH
00:30 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

urriak27
LUR D JOTAK I AK + MAURO
00:30 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

azaroak24

La Pulquería



BISITA EZAZU
GURE WEB ORRIA

LURELIZONDO.COM

Laguntzaileak:

Mahou

Carlsberg



Baztango Udala

ETORRI BAINO LEHEN, PASA ZAITEZ HERRIKO TABERNETATIK

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

Eskoletako ikasle kopuruak goiti egiten segitzen du

Denetara 37 ikaslek hasi dute ikasturtea Zugarramurdi eta Urdazubin

Margari eta Koro

Azken urte hauetan gure herriak haunditzen ari direla ez dago dudarik, eta hori eskolan ere ikusi daiteke: aurreten zazpi haur berri hasi dira eta lauk finitu dute. Denetara 37 ikasle ditugu ikasturte honetan Urdazubi eta Zugarramurdiko eskoletan.

Bertalalde, Guraso Elkartean aldaketak egin direla ere erran digute: Itziar Galarregi, Hirune Soto eta Mentxu Fagoaga sartu dira berriak; Itziar Arburua, Fermi Etxart eta Karmentxu Jaurenak segitzen dute; eta Begoña Olagarai, Axun Irazoki eta Ana Mari Maskotenak utzi egin dute.

Ahozko tradizioaren bila Zugarramurdira

Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Euskaltzaindiak, CAN eta Euskokultur Fundazioak Zugarramurdin grabatu dute *Nafarroako ahozko tradizioaren iku-*



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

Urdazubiko plaza itxura berritua

Urdazubiko plazak arras bertzelakoa ematen du egun hauetan: pilotalekua bota dute eta orain konbentu zaharra osorik agerian gelditu da, lehengo itxura berreskuratuz. 1924. urtean eraiki ziren frontisa eta ezker pareta eta 1982. urtean estali. Duela gutxi pilotaleku berria inauguratu zen zaharrari txanda emanez. Orain azaroaren 15erako plazako lanek finituak behar dute izan, harrizko zola emanez eta ezpela landatuz.

sentzunezko artxiboa- ren zati bat. Horretarako herriko 5 lagun elkarriketatu dituzte (eta filmatu) lehengo bizimoduak, usaiak, lanak, bes-tak, istorio zaharrak eta halakoak jasotzeko.

Elkarrizketak Iriartean, Teltxegian, Martinean eta Kaminoko-bor-dan egin ziren gan den udaberrian. Orain, urriaren 27an, herri guztia- rentzat aurkezpen pu-blikoa egingen da Ospi-

telean, 18:30ean. Aur- kezpenaren ondotik luntx bat eskainiko da etorritako guztiendako.

Azkenik, aipatu, lan hau Akelarre Elkarteak antolatu eta ordaindu duela.

FLASH

Telefono zerbitzurik gabe berriz ere

Bertze behin telefonoen zerbitzurik gabe daude Urdazubin irailaren 26az geroztik. Dagoeneko aurreten laugarren aldia da, urte hasieratik sakeleko zerbitzuan zein ohiko telefonian zerbitzuan bertze hiru mozketak izan baitira. Aldi honetan, Movistar konpainiako sakeleko telefonoen jabeak irailaren 26az geroztik koberturarik edo estaldurarik gabe daude, eta ohiko telefonotan dei batzuk baino ez dira egin.

Ez da lehenbiziko aldia telefonian zerbitzurik gabe gelditzen direla herrian. Urtrarean, otsailan eta martxoan luze iraun zuten hiru mozketak egon ziren, eta Telefonica enpresak hala onartu zuen. Gaia Espainiako Parlamentura ailegatu zen, eta Gobernuak «*eguraldi txarraren ondorioz*» izan zirela erantzun zuen. Mozketak saihesteko, Gorramendin antena berria paratuko zela erran zen, baina Urdazubiko Udalak horren inguruko inongo jakinarazpenik ez duela jaso azaldu digute. Herriaren kalterako eta haserretarako arazoek segitu egiten dute.

SENPERE

Capdevielle lantegia hesteak golpe berria eman dio herriari



Ahozko literatura ohoratu dute aurtengo Kantu Xaharren Egunean

Franck DOLOSOR
Kolpe berria jaso du herriko ekonomiak. Capdevielle lantegia Txinarrat eramatea deliberratu du enpresako zuzendaritzak. Horrela, deslokalizazio honen ondorioz, 259 lanpostu desagertuko dira, gehienak Hagetmaun Landesetan, enpresaren lantegi nagusian, eta bertze 26 Senperen. Capdevielle enpresak kanapeak eta sofak esaltzeko oihalak ekoizten zituen. Diru arazoak zirelakoan azken urteetan enpresa osoa Txina alderat eramatea hobe dela iritzi dute zuzendariak, ekonomia hobetzeko.

Ahozko literatura gogoan
Ohiturari jarraikiz, Euskal Herriko ahozko literatura ohoratu dute berriz ere aurtengo Kantu Xaharren Egunean. Oxtikenekoak elkarteak da 1999. urteaz geroztik besta hau apailatzen duena, eta Kantu Xaharrak biltzeko helburuarekin egiten du hori.

Goiko argazkia Auxtin Zamorak utzitakoa da eta aurtengo edizioan parte hartu zutenak ageri dira.

m l ut sun n r uk r .

M l ut sun n h e z u , N l r r k u r l k u x
z u r k u l x . Z u r h e r r k z u l z n l u l k
e h k l r n n n s z n l u z l n
r u k t u z r l z u k s e n z n z k z u l k .

nire avkera

**NAFARRAK
RUR L KULTXA**

www.rur.tv.com
t. l. 2 3 1 2

SARA

Urriaren 6tik azaroaren 4ra arituko dira usazaleak

Traparen ardura Mattin Pikabearen eskuetan izanen da sasoin honetan

Xan HARRIAGUE

Joan den larunbatean zortzi hasi zuten denboraldia herriko usategietan. Aurtengo, aldaketa handirik ez dute egin ehizean aritzen den taldean. Hala ere, langile berri batzuk hasi dira, eta traparen ardura Mattin Pikabearen eskuetan da sasoi honetan. Gaineratiko postuei dagokionez, bana-keta hauxe izanen da: Trapagibelean Andde Iribarren, Zokokoan Mixel Errandonea, Errekakoan Patxiku Etxeberria, Harrixuritan Jean Laurent Mitxelena, Larrean Stephane Telletxea, Debalden Claude Etxegarai, Saiberrin

Martintxo Agirre, Harrikoan Mathieu Louis, Haitzekoan Joset Lasaga, Orratzekoan Patxiku Arroztegi, eta saretan Koxe Angel Olaitola, Paul Pradere, Paul Errandonea eta Jama-tti Irazoki. Azaroaren 4a arte izanen dute iaz atzeman zen uso kopurua hobetzeko, eta epea finitzean pasaia polita bada, denboraldia aste batez luzatuko dute.


Paxaka liga

Herriko hiru talde arituko dira aurtengo paxaka ligan, bat lehen mailan, eta bertze biak bigarrean.

Maila gorenean, Jean Jacques Elizerrin An-

doni Allirekin arituko da, betiko laguna Mattin Arrietak txapelketetan aritzeari utzi baitio. Azken hamarkadetan Arrietak eta Elizerritxapel anitz irabazi dituzte, bai Ipar Euskal Herrikoak, baita Frantziakoak ere. Azken urte hauetan Senpereko bikote on batekin final bakan batzuk galdu badituzte ere, paxakako historiako azken 20 urteak marakatu dituzte.

Bigarren mailan arituko direnak zaharrek irekitako bidea segitu nahiko dute, baina horretarako gogor lan egin beharko dute. Bi bikoteek lehen urtea izanen dute txapelketan. Xan



ARGAZKIAK: XABI BERRUET

Ezkerreko argazkian ehiza postua ageri da. Lan-ean hasi aurretik orduak goaitatu behar izaten dituzte usozaleek altura handian. Eskuinean, paxakan ageri dira. Aurtengo txapelketa lehena den arren, iaz hasi zen entrenatzen belaunaldi berria.

Urbistondo eta Matiu Berruetek talde bat osatuko dute, eta Patrik Etxegarai eta Ximun Gartzia bertzea. Liga heldu den igandean hasiko da eta herriko hiru taldeak etxean arituko

dira 9:00etatik aitzinera Pleka trinketean. Liga finitzean, kanporaketa zuzeneko txapelketa jokatuko da sailkatu direnen artean. Finala, berri, otsailaren hondarean iraganen da.



Ma Pilar MUTUBERRIA OSCOZ

Arantzan hil zen 2007ko irailaren 20an, 62 urte zituela

Zuretik aunitz ikasi dugu
erraxa dela erratea.

Zu bezalako pertsona
ez da zail egiten maitatzea.

Emanzte eta ama on-ona izan zinen,
eta amatxi, berriz, hobea.

Oraín falta zaigun gauza bakarra,
denagatik eskerrak ematea

ZURE SENARRA ETA SEME-ALABAK

Familiak eskerrak eman nahi dizkie egun gogor hauetan
gure ondoan egon diren guztiei.



Ma Pilar MUTUBERRIA OSCOZ

Arantzan hil zen 2007ko irailaren 20an, 62 urte zituela

Gure bihotzak penaz beteak
hemen dituzu utzi,
gure artetik joan zarela
ezin dugula sinetsi,
horrelarik ez genuela
ezta zuk ere merezi.

Agurrik ez dizugu erranen
gero arte bai amatxi maitea.

ZURE BILOBAK



Jose Angel «KOTTO» ALTZUGUREN PERURENA

II. URTEMUGA

(Beran 1966-III-03/Sorian 2005-X-31)

Eman zenuen bizia euskaragatik,
herriarengatik, Euskal Herriagatik,
eta azken bederatzi hilabeteetan
familia eta lagunei eman zenien bizia,
joan arte.

ETXEKOAK

Beran, 2007ko urriaren 31n



EZKONTZAK

Fernando Garcia Gallego eta **Itziar Mielgo Rey**, Beintza-Labaiengoak, urriaren 1ean Beintza-Labaienen.

Anartz Tapia Alzuarte eta **M^a Soledad Rekarte Ariztegi**, Erratzukoak, irailaren 22an Erratzun.

Jose M^a Gomez de Segura Iriarte eta **M^a Teresa de Andres Zabaleta**, Arraioz eta Donostiakoa, irailaren 28an Elizondon.

Vicente Oteiza Jaimerena eta **Maidar Larre Torres**, Elizondokoak, irailaren 25ean Amaiurren.

Juan Jose Barcenilla Plazaola eta **Ana M^a Lanchas Endara**, Irungoa eta Berakoa irailaren 29an Beran.



SORTZEAK

Mikel Urroz Gonzalez, Urrozkoa, irailaren 21ean.

Xuban Saharrea Etxegarai, Elizondokoa, irailaren 21ean.

Joana Etxaide Urrutia, Erratzukoa, irailaren 13an.

Elaia Bakero Aleman, Iruritikoa, irailaren 24an.

Iona Beola Viktoroba, Almandozkoa, irailaren 28an.

Oier Goienetxe Maritxalar, Berakoa, irailaren 23an.

Eider Olaetxea Etxeberria, Lesakakoa, irailaren 18an.

Nora Maritxalar Garaiar, Lesakakoa, irailaren 22an.

Mikel Arriet Atonto Elgorriaga, Etxalarkoa, irailaren 30ean.

Yurak-Isabel Kabaskango Ruiz, Leitzakoa, irailaren 23an.

Paul Feo Miguela, Leitzakoa, irailaren 28an.

Maddi Aginaga Elizalde, Goizuetakoa, irailaren 18an.



HERIOTZAK

Natividad Anton Sancho, Elizondokoa, irailaren 22an, 86 urte.

Michel Charles Veautrot, Erratzun, irailaren 24an, 63 urte.

Manuela Orrio Goizueta, Goizuetakoa, irailaren 24an, 97 urte.

M^a Angeles Igoa Altzugarai, Lesakakoa, irailaren 28an, 69 urte.

Ane Gonzalez Vahl, Lesakakoa, irailaren 28an, 14 urte.

Doroteo Iriarte Arozamena, Donamariakoa, irailaren 28an, 79 urte.

Juan Bautista Etulain Barrenetxe, Berroetakoa, urriaren 3an, 76 urte.

M^a Palmas Matxiarena Aranibar, Berakoa, urriaren 5ean, 77 urte.

M^a Carmen Erauso Amondarain, Elizondokoa urriaren 6an, 42 urte.



Ane GONZALEZ VAHL

*Nahiz eta guk ez ikusi,
gure artean zaudela dakigu.
Zure irriak aurrera jarraitzen
lagunduko digu.*

MAITE ZAITUGU

ZURE LAGUNAK



Ane GONZALEZ VAHL

*Goiko zeruan izar disdiratsu bat azaltzen denean
Zure irrifarra sentituko dugu gure barrenean.*

*Triste eta iluna den egun batean
Izar bat piztuko da gure bihotzean.*

Maite zaitugu betiko gure oroimenean.

TOKI ONA INSTITUTUA



Ane GONZALEZ VAHL

*Aio laguna
inoiz ez gara damutuko
lagunak izana
Inork ez digu beteko
zuk utzi diguzun hutsuna*

MAITE ZAITUGU ANE

**ZURE LAGUNAK: JABIER, GURUTZE,
FERMIN, MIRIAN ETA OIHAN**



Miguel SOLANO *Berako parapente jauzilaria*

ARTXIBOA

• Miguel Solano kirolari beratarrak, Liga Norte izeneko txapelketa irabazi du parapentean.

• Txapelketa honek, Euskal Herrian, Burgosen edo Segovian egiten diren zortzi proba biltzen ditu eta horietatik hirutan irabazle eta bertze batean bigarren izan da Solano.

• Duela hamar urte hasi zen parapentean ibiltzen ikasten herriko lagunekin batera, Irunen Ibargoienekin. Bere ustez ez da prestakuntza fisikoa handia eskatzen duen kirola, hori bai «*ordu aunitz sartu behar dituzu*».

«Arriskua badu parapenteak, baina jendeak uste baino aunitzez guttiago»

Aitor AROTZENA

Martxoan hasi zuen parapente konpetizio denboraldia Miguel Solano beratarrak eta Arangoitin bi proba eta Burgosko Oñan irabazi du. Segovian bigarren izan zen. Emaitza hauek eta bertze probetako sailkapenak kontuan hartuta, Liga Norte delakoa irabazi du, bere lehenbiziko garaipen handia. «*Denboraldia akautzeko modu ederra izan da*» erran digu Solanok.

Duela hamar urte hasi zen beratarra parapentean. Herriko lagun batzuekin ikastaroa egin zuen Irunen Ibargoien irakaslearen eskutik. «*Hegan egiteko ametsa egia bihurtua ikusi nuen, haizearen soinua, askatasun sentazioa betekorra eskaintzen dit parapenteak*». Lehenbiziko saltoa bakar-bakarrik egin zuela gogoran du, «*irradi bidezko walkie-talkie baten laguntza hutsarekin*».

Pixkanaka konpetizio munduan murgildu zen eta lehen aldiz Espainiako txapelketan parte hartu zue-

«*Ongi pasatzeko hegatzan gara, beldurra pasatzea ez zaigu inori gustatzen. Horregatik, haizea zakartzen denean berehala lur hartzen dugu*»

nean, Cadizen, 40. postua eskuratu zuen. Geroztik, Euskal Herriko eta Espainiako txapelketetan hirugarren izana da, Portugalgo txapelketan zazpigarren eta Europako txapelketan, Munduko Kopan bi aldiz edo British Openean bezalako proba garrantzitsuetan parte hartua da.

«**ARAUAK BETETA EZ DA ARAZORIK**»

Parapenteak ibiltzeak ez duela zailtasunik uste du Berako gazteak. «*Manejatzeko erraza da, bi freno, azeleradorea eta gorputzarekin lagundu... Hori bai, meteorologia pixko bat jakin behar duzu, non eta noiz ibiltzen ahal zaren, haizeak nondik nora jotzen duen eta horretarako ur-*

teak behar dira». Kirola ezagutzen ez duten aunitzek erotzat dituzte parapente jauzilariek, baina gehienek zentzuz jokatzeko dutela aipatu digu Solanok: «*Goatzeko hegatzan gara, ongi pasatzeko, beldurra pasatzea ez zaigu inori gustatzen. Horregatik, haizea zakartzen denean berehala lur hartzen dugu*». Parapentean ibiltzeko belak 2.000 euro balio du eta Solanok bakarra dauka. «*Dena bezala, kapritxo gisara erosten baduzu garestia da, baina erabiltzen baduzu, ez da dirua*». Prestakuntza berezirik ere ez da behar, «*hori bai, orduak sartu behar dira*».

Hainbertze probatan parte hartu ondotik ez du inoiz istripurik izan Solanok. «*Arauk betez gero ez da arazorik izaten, parapentean ibiltzeak jendeak uste baino arrisku guttiago du*». Baina parapente denboraldia akautu bezain abudo baja hartu behar izan du. Zergatik eta lanean kamioitiki erorita besoan min hartu delako. Beraz, non dago arriskua?

HERRI KIROLA

Emakumeen arpanlari txapelketa irabazi dute Ariztegi eta Galarregik

Igantzik irabazi du Herriz Herriko bigarren konbinada

ttipi-ttapa

Izaskun Ariztegi eta Lourdes Galarregi etxalartarek bigarren aldiz segidan irabazi dute Nafarroako emakumeen arpana txapelketa. Irailaren 29an Igantzin jokatu zen finala eta Etxalarko bikoteak 8 minutu eta 48 segundu behar izan zituen 45 ontzako enborrari 10 korte emateko. Itziar Nuñez eta Ana Lopez bigarren izan ziren 9 segundura eta Maitane Txueka eta Susana Agerre hirugarren, 18 segundura.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Lourdes Galarregi eta Izaskun Ariztegi txapela janzteko lanean eta behe-tian, Igantziko herri kirol taldea, txapelketa bikaina egin ondotik.

HERRIZ HERRI TXAPELKETA

Herriz herri txapelketako azken saioa ere Igantzin jokatu zen San Migel egunean. Lehen konbinadako finalean Berriozar nagusitu zen (19'27"), Igantzi izan zen bigarren (21'07") eta Garralda hirugarren (21'49"). Laugarren posturako lehian, Basaburuak Gure Txokoak baino lehen akautu zituen lanak, baina baztandarrak legezkoa ez den aldaketa egin zuten, azkenean beratarrak izan ziren laugarren.

Igantziko taldean Mikel Antxordoki aritu zen koxkor biltzen, Iñaki Bereau eta Karlos Sein zakuekin, Xabier Ariztegi aizkoran, Patxi Irazoki korrika eta Julen Txoperena eta Iñaki Portu arpanan.

Berako taldean Iñaki Irazoki aritu zen koxkor

biltzen, Patxi Pikabea eta Mikel Larretxea zakuekin, Ander Erasun aizkoran, Iñigo Lasaga korrika eta Mikel Araniar eta Iban Zubieta arpanan.

Baztango taldean, Gabon Gamio aritu zen koxkor biltzen, Beñat eta Cesareo Gartxitorena zakuekin, Garikoitz Larretxea aizkoran, Mikel Igoa lasterka eta Jose

Ignacio Iribarren eta Unai Apeztegia arpanan.

Bigarren konbinadan liga sistema erabili da. Igantziko probako sailkapena eta sailkapen orokorra berdin gelditu ziren: Igantzi garaile, Gure Txokoa bigarren, Garralda hirugarren, Berriozar laugarren eta Basaburu bosgarren

Igantzirekin Xabier Ariztegi aritu zen harri

altxatzen, Oskar Telletxea txingekin eta Xabier Sein ingudearekin.

Berako taldean, Xabier Galarregi izan zen harrijasotzailea, Joseba Petrirena ibili zen txingekin eta Igor Lasaga ingude altxatzen.

Basaburu taldean, Asier Maritorea aritu zen harri altxatzen eta txingekin eta Xabier Maritorea, ingudearekin.

Nazabalek irabazi zuen Nafarroako txapelketa

ttipi-ttapa

Floren Nazabal zen urriaren 7an Nafarroako lehen mailako txapela irabazteko faborito nagusia. Gaur egun sasoi hoberenean dagoen aizkolaria izateaz gain, kontra egiten ahal zion bakarra, Donato Larretxea, Alemanian zen, Munduko Stihl Timbersport txapelketa jokatzeko. Honela, Etxarrikoak ez zuen hutsik egin eta aisa lortu zuen txapela, hasieratik bukarara nagusi izan baitzen. Azkenean, ordu erdi baino gehixeago (30'25") behar izan zituen lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbikoak mozteko.

Bigarren postuan ezustekoa eman zuen Lezaungo Juan Jose Lopezek eta txapel-dunak baino poz handiagoa ere hartu zuen (32'04"). Hirugarren postua Mikel Midegiak lortu zuen (33'09"). Ezkurrakoa ez zegoen kontent, bigarren postua bederen eskuratzea espero zuelako, baina lehen enborrean ateratako adarrak denbora eta animoak galarazi zizkion. Gainera, kontuan hartu behar da lesio batetik atera berria dela Midegia eta oraindik ez dagoela sasoi betean. Laugarren postua Barberenarentzat izan zen (37'13") eta bosgarrena Senosiain izan zen (40'31").

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

ERAKUSKETAK

URDZUBI

Abuztuaren 22tik azaroaren 11ra, Dominique Duplantier artistaren lanen erakusketa.

ELIZONDO

Urriaren 5etik 20ra, Larresoro-Baztan pintura erakusketa Arizkunenean.

IRUÑEA

Irailaren 30etik urriaren 31ra, Bertsotan blai Manuel Lasarte bertsolari leitzararren inguruko erakusketa, Tafalla Jauregian.

IKASTAROKAK

BERA

Urriaren, marrazketa eta pintura ikastaroa maila guztietako jendearentzako, 10 urtetik goitikoentzat eta helduentzat. Astean bi orduko ikastaroak. Izena 620719400/948630597 telefonoetan (Mathilde).

LEGASA

Asteazkenetan, Arnas irakaskuntza eta terapia hats bizigarria ikastaroa, 19:00-20:30era (619324510).

LESAKA

Urriaren 2tik azaroaren 8ra, Norbera Ongizate Lantegia, astearte eta ortzegunetan 16:30etik 18:30era.

SOLASALDIKAK

LESAKA

Urriaren 22an eta 29an, Gure seme-alaben sexualitate eta afektibitate gurasoentzako hitzaldi-tailerra, 17:00etan Antoiu 27-2 aretoan.

KONTZERTUAK

BERA

Azaroaren 4an, SYC Ensenble Singers taldea 20:00etan Kultur Etxean.

TELEBISTAKO TXOKOA



Udazkeneko feria eta azoken txanda ailegatu da

BASERRIKO LANA PLAZATIK TELEBISTARA

Udazkena ailegatzearekin batera naturak eskaintzen dizkigun produktuak biltzen hasi ginen. Horren harira, ikataroak, erakusketak eta ekitaldi berexiak egiten dira gure eskualdean. Horietatik gehienak nekazaritzari eta abeltzaintzari lotutakoak: azokak, feriak... Aunitz dira eskualdean egiten diren azokak, Bortzirietan, Malerrekan, Baztanen, Leitzaldean... Guztietara agertzea zaila denez, ttipi-ttapa telebistak horretarako aukera emanen du du. Heldu den urriaren 26an eta 27an Elizondoko ferien txanda izanen da. Ondotik Doneztebe eta Lesakakoak etorriko dira. Igan-de honetan zortzi, berriz, urriaren

28an, Berako Lurraren Egunaren 21. edizioa egingen da. Azaroaren lehenbizikoan Baserritarren Eguna egingen da Arantzan. Aipatutako guztietan barna ibiliko dira telebistako lankideak, irudi eta elkarrizketarik interesagarrienak etxeetara hurbiltzeko asmoz.

BESTETAKO BIDEO ETA DVDK SALGAI

Doneztebe, Lesaka, Bera, Arantza, Etxalar eta Igantziko besten DVDak eta bideoak salgai daude. Interesatuak 948 635458ra deitu behar dute eta hor azalduko diote nola egin eskaera. Hala, datuak bidu eta postaz bidaliko zaio etxera.

DISKAK



Konplizeak

Jabier MUGURUZA

ELKAR, 2007

Irungo artistaren berderatzigarren diskoa dugu honakoa, oraingo honetan Elkar zigiluan, bere lehendabiziko hiru diskoak kaleratu zituen diskoetxe berean. Bere ibilbide pertsonalaren hasieratik Jabierren musikak intimismo joera izan du eta ezaugarri hori mantendu egiten da honetan ere, denborak ematen duen heldutasunak eta zihurtasunak bermaturik. Diskoa erabat iradokitzailea eta gustagarria da, arimaren gunean asmatzen duelarik. Ondoan izango ditu Angel Unzu (musika-zuzendaria) eta Mireia Otzerinjauregi (ahotsa), eta grabaketan kolaboratzaile bikainak izango ditu: Martirio eta Duquende. Martirio Espainiako koplak 70eko hamarkadan izan zuen ordezkari garrantzitsutzat hartua izan da. Diska joan den ortzegunetan aurkeztu zuen, urriaren 11n.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Irailaren 28tik urriaren 5era bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea (19 kilo): 20,00 € (=)

Zerri gizena 0,937 € kilo. (-0,035)

Zerramak: 0,310€ Kg/bizirik. (-0,020)



BEHIKIA

Aretze gizenak: Idixkoak: €/kg. Kanal Extra 4,01 (-0,03)

1.koa 3,70 (-0,03)

2.koa 3,20 (-0,06)

Urruxak: €/kg. Kanal Extra 4,13 (-0,03)

1.koa 3,82 (-0,03)

2.koa 3,30 (-0,06)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak (15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 145,00 (=)

idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:

urruxak 110,00 (=)

idixkoak 140,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,00/3,10

Zaldi-behorrak: 1,78/1,98

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 7,90/8,50


8-10 kilokoak: 6,00/6,80

JAKIN BEHARREKOAK

Sakeleko telefonoen tarifak %6,5 igo dira martxotik ekainera

Telekomunikazioaren Merkatu Batzordeak hori ondorioztatu du

Telefonia konpainiek tarifak igo egin dituzte urteko bigarren hiruhilekoan, aitzineko hiru hilabeteekin konparatuz gero. Zehazki %6,5ean egin du goiti kopuruak. Urtarriletik martxora bitartean tarifak beheiti egin zuten, Telekomunikazioaren Merkatu Batzordeak sakelekoen prezioak kontrolatzen dituenetik tarifa baxuenak. Apiriletik ekainera arte, ordea, kontsumitzaileek ez dute berri onik jaso. Datuok enpresak prezioak boroildu beharrean segundoko kobratzen hasi diren garaian jakin ditugu. Martxoan prezioak boroildu beharrean, segundoka kobratzea exijitzen zuen legea onartu zen, eta aldaketa horren ondorioz, erabakiz zuten telefonia konpainiek tarifak aldatzea.



Telefónica, Vodafone, Orange eta bertze enpresen irabazien batezbertzekoa minutuko 17,78 zentimokoa izan zen urtarriletik martxora, eta 18,94koa apiriletik ekainera. Prezioak aunitzetan igo dira, baina oraingoa azken aldian izan den gorakadarak haundiena izan dela dio Telekomunikazioaren Merkatu Batzordeak.

Sakelekoa aitzinetik ordaintzeko txartelarekin edo gerora ordaintzeko kontratuarekin izan, aldea dagoela azpimarratu du aipatu Batzordeak. Izan ere, igoera hori aitzinetik ordaintzeko txartelaren kontsumitzaileen sakelak nabaritzen du batez ere: %26,6 gehiago ordaindu behar izan zuten minutu bakoitzeko, beti ere, Merkatu

Batzordeak egindako azterketaren arabera. Bertze kontratuarekin, ordea, igoera %2,8koa izan da.

Egia dena da, telefono konpainiek etekin haundiagoak ateratzen dituztela kontsumitzaileek gerora ordaintzeko kontratua aukeratuta, erabiltzailearen fideltasuna segurtatzeaz gain, irabaziak ere segurtatuak dituztelako, baita kontsumo minimoa ere. Horregatik eskaintzen zaizkie prezio baxuagoa duten tarifak. Baina 2007 lehen hiruhilekoan ez da horrela izan. Aitzinetik ordaintzeko txartelen kasuan minutua 15,78 zentimotan aterata da; gerora ordaintzeko kontratuekin, berriz, 18,23koa.

Tarifaren gorabeherak alde batera utzita, sakelekoak joan den urtean baino merkeagoak dira.

LIBURUAK



Tunela

Ernesto SABATO

ELKAR&ALBERDANIA, 2007

«Esango dut, eta aski izango da horrekin, Juan Pablo Castel naizela, Maria Iribarne hil zuen margolaria». Hitz bortitz horiekin hasten da eleberriz zurragarri hau, kartzelatik egindako aitorpen gisakoa, hara eraman duen ibilbide iluna kontatzen duena. Gizaki sentibera eta bakartia da protagonista, adimen azkarra baina nortasun paranoikoa dituen; horrek eramanen du amodioa modu gaixotian bizitzera, jabetasun eta jelsiazko eromen

hazkor batean, bai beraren, bai maitearen suntsitzea ekarriko duena. Izatearen zentzurik eza eta komunikazioaren ezina erakusten dituen obra existentzialistatza hartu izan da urtetan, arrazoiz, baina gisa berean erran liteke emakumeen kontrako bortxakeria daraman prozesu psikologikoaren erakusgarria dugula, bikaina bezain izugarria. Ernesto Xabato argentinarraren liburua da eta Mikel Garmendiak itzuli du euskarara.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

MENDI ATERALDIAK

SUNBILLA

Urriaren 21ean, Nafarroako Mendigoizale Eguna ateraldia antolatu du Ulibeltzak taldeak. **Urriaren 28an**, Abbadiara ateraldia Ulibeltzak-ekin.

KONTZERTUAK

LESAKA

Urriaren 20an, Giltzarri Abesbatzaren kontzertua, San Martin Elizan ilunabarreko meza ondotik.

HAURRENTZAKO AISIALDIA

LESAKA

Urriaren 30ean, *Halabazango Ipuinak* Maite Franko ipuin kontalariarekin, 18:00etan liburutegian.

BERA

Urriaren 25ean, Estitxu Mentaberri ipuin kontalaria 5-8 urte bitartekoentzat. 18:00etan liburutegian.

BERA

Azaroaren 11n, haurrentzako ikuskizuna: *Kuku, aitonaren erlojua* txotxongilo taldea, 2 eta 10 urte bitarteko haurrentzat. 17:00etan Kultur Etxean.

OSPAKIZUNAK

BERA

Urriaren 28an, XXI. Lurraren Eguna. Xehetasunak aldizkariko 9. orrialdean.

ARANTZA

Urriaren 31tik azaroaren 3ra, kultur egunak. Xehetasunak aldizkariko 13. orrialdean.

ETXALAR

Urriaren 25ean, 27an eta 31n, kultur egunak. Xehetasunak aldizkariko 11. orrialdean.

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8€ ordaindu behar da. Ttipi-Ttapa telebistan eta www.ttipi.net-en ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin).
8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIZAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituko
106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

LANA

301. Eskariak
302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

401. Eskaintzak
402. Akademiak

MOTORRA

501. Salerosketak
502. Tailerrak

ANIMALIAK

601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

DENETARIK

701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

HARREMANAK

801. Agurrak

ADOS

ELIZONDO.
- 2. eskuko eta promozio berriko pisuak eta apartamentuak salgai.
ERRATZU-AZPILKUETA.
- Etxeak, pisuak eta lur eremuak salgai.
BERA.
- 2. eskuko pisuak salgai.
- Ostatuak salgai.
- Lur eremuak salgai.
LESAKA.
- Pisuak eta lur eremuak salgai.
DONEZTEBE.
- 2. eskuko pisuak salgai.
- Promozio berriko 2 duplex salgai.
NARBARTE.
- 2. eskuko pisuak salgai.
SUNBILLA.
- Familia bakarreko etxeak eta adosatua salgai.
DONEZTEBE INGURUAN.
- Baserriak, etxeak, bordak, pisuak eta lur eremu eraikigarriak salgai.
ELIZONDO INGURUAN.
- Familia bakarrekoak eta lur eremuak salgai.
BAZTAN-BIDASOA.
- Bordak, baserriak, etxeak, pisuak, apartamentuak eta lur eremuak salgai.

PROMOZIO BERRIAK.
GARTZAIN: 135 m²ko familia bakarreko bi etxebizitza, 600 m²ko partzelarekin.
ORONÓZ-MUGAIRI: Bi familiako 8 etxebizitza, 178m² erabilgarri bi solairutan banatuta.
AGOITZ: bi familiako 20 etxebizitza, 201 m² eraikiak eta 170 m²ko lorategiarekin.

INFORMA ZAITEZ!
948 451 841 / 948580705
www.ados-inmobiliaria.com

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

LESAKA. 229 m²ko familia bakarreko etxearen proiektua, lurarekin eta lizentziarik salgai. Eremu urbanizatua ura, argia, urzikinen putzua... Promotore bat interesatua egonez gero, permuterako prest. % 678 526091.



DONEZTEBE. Aparan inguruan pisua salgai. % 617461649.

BERA. Bortziarik karrikan 206 m²ko adosatua salgai 300 m²ko eremu eta igerilekuarekin. 3 solairu, txo-koa, garajea, 3 logela, 2

ANZABAL INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.

- Eskaintzatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI.

- Baserria salgai 50.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurarekin salgai.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com



komun, egongela...
% 665724612.

BULDAIN INMOBILIARIA

Erkurran:
4 etxebizitza berri garaje eta lur eremuarekin. 183.300 euro
Anzabal, 37 behea - LEITZA
T.948 510 534 - 649 476 615

ELIZONDO. 140 m²ko pisua salgai, igogailuarekin. % 617461649.

ELIZONDO. 90m²ko pisua salgai, nahi izanez gero bajararekin. % 649172567.

BERA. 90m²ko pisu mobilizatua salgai, kapritxora berritua, 3 logela, 2 bainu-gela, sukaldea, jan-egongela, trasteleku eta igogailua. 42.000 euro. % 948 630168 (15:30etik aitzinera).

LEITZA. Patxi Arrazola kalean pisua salgai, 160.000 eurotan. Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainu-gela. % 685981961.



Baztango

promoción inmobiliaria

SALMENTA:
BERA: Familia bakarreko 3 solairuko etxea, 675 m²ko lur eremuarekin.
BERA: 3 solairuko etxea, 1.655 m²ko lur eremuarekin.
BERA: 121 m²ko pisu berria, igogailuarekin.
BERA: 89 m²ko pisu berria, igogailuarekin.
BERA: 77m²ko pisuak, 3 logela, egongela, sukaldea eta bainu-gela.
BERA: Etxebizitza irateko hain duen 76m²ko lokala, argitsua.
ETXALAR: Zaharberritutako baserria, 155 m² eta 3 solairuko, garajea eta lur eremua.
IGANTZI: 229 m²ko etxea, 3 solairuko.
SUNBILLA: Elkarni atxikitako 163 m²ko etxebizitza, 68 m²ko lur saila eta 25 m²ko atarpea.
DONEZTEBE: 100 m²ko pisu berria, 3 logela, 2 bainu-gela, egongela, sukaldea eta trastelekuak.
DONEZTEBE: Erdigunean: 72 m²ko pisuak eta bajera.
ERRATZU: Zaharberritutako familia bakarreko etxea eta lur eremua.

LUR EREMUAK:
BERA: 2.155 eta 3.188 m²ko lur eremuak hiru-gunean.
ETXALAR: 8.750 m², ura, argia, bidea, familia bakarreko etxebizitzarako.
SUNBILLA 1.100 m², GAZTELU herri-gunean 3.645 m².
DONAMARIA 3.656 m², ELIZONDO 13.600m², ERRATZU 2.724 m².
Gutxiak erakitzeko.

ATERPEA SALGAI EZIN DELAKO ATENDITU. Errentagarritasuna zuzentzea. Informazio pertsonala.

**ESKARI HANDIA IZATEAGATIK
ETXE ZAHARRAK, PISUAK, BASERRIAK BORDAK
ETA LUR EREMUAK BEHAR DITUGU.**

Kattonberri karrrika, 4 Tfn. 948 630552
31780 Bera. Navarra. Faxa 948 630106

ETXEBIZITZAK

103 Errentan eman

IRUÑA. Ikasle-pisua errentan emateko, 3logela. % 630 045413.

BULDAIN INMOBILIARIA

Leiztan:
Familia bakarreko etxebizitza. Leizaldea bidean salgai.
Anzabal, 37 behea - LEITZA
T.948 510 534 - 649 476 615


GARAJEAK/LOKALAK 107 Saldu

LESAKA. 20m²ko garajea salgai. Albistur 43. % 659 609678.

ARANTZA. 75 m²ko lokal komertziala salgai. Saneamendua, ura, argia eta telefono instalazioarekin. Leku onean. % 608 174510.

LURRAK/ORUBEAK 115 Errentan hartu

BORTZIRIAK. Belar soroa edo larrea hartuko nuke Bortziarik inguruan. Ez du inporta egoera, motorrekin ibiltzeko da. Ahal bada etxebizitzetatol eta jendearen-



andueza

NARBARTE:
- 85m²ko pisua, 20m²ko garajea, 100m²ko banatzarekin.
30.500.000 Psta

LEGASA:
- 94m²ko pisua, 45m²ko terraza, 57m²ko garajearekin.

DONEZTEBE:
- Hiri erdian, 107m²ko pisu berria salgai.
42.000.000 Psta

ORONÓZ:
- Etxebizitza batean hiru pisu berri salgai

ELIZONDO:
- 130m²ko 3 baita salgai.
Solairu bakarrekoak, eskalarekin gabekak.
Oso erosak, 400m²ko lur eremuarekin.

**BASERRIAK
ERE SALGAI**

T. 948 23 88 16
M. 620 20 87 87
www.habitat24.com/andueza

ELGORRIAGA. 150 m²ko adosatua salgai, sartzeko prest. % 666 044176.

VENTANAS ARAMBURU
Ongizate termiko eta akustikoa
Aluminioa egur koloretan

Gabria, 42 IRUN
Tel.: 943 62 22 57 • Fax.: 943 62 38 11

BORDA
PLADUR LANAK

ISOLAMENDUAK
DEKORAZIOA
ERABERRITZEAK
SABAI MODULARRA

#Bor-87-B (ESAKA)
bor@terra.es
Tlx/Fax: 948 537 548
Rg: 629 477 277

gandikaparte. % 686650232.

ZERBITZUAK 205 Zurginak

ARANTZA
Zurgindegia.....

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu orrekantzuak konpromisoa gabe

Jose Miguel Escudé
M: 948 634 048 - 647 810 944
Gorbeia - 48007

LANA 301 Eskariak

Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. % 618 391026/ 948 580473.
LESAKA. Umeak zaintze-

ko neska eskaintzen da, arratsalde. % 645 716509.

LANA 302 Eskaintzak

Inguruko enpresa batek urbanizatueta lan egiteko 2.mailako ofiziala edo peioi espezializatua behar du. % 616513491.

Trailerrarekin ibiltzeko txoferra behar da. Egunean 7 ordu eta bi tornetan. Ongi ordaindua. % 630 989415.

Ileapaindegi batean lanaldi-erdirako norbait behar da. % 948 638004/667536132.

ETXALAR. Goizetan haurra zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko emakume euskalduna behar da. % 679 642833 (15:30etik aitzinera).

BERA. Elektrikari ezagupenak dituen zonaldeko euskalduna behar da etxeetara joan eta etxetresnak konpontzeko. Frantsesa jakitea baloratuko da. Curriculumak: Bidasoa 45, 31780 Bera. % 948 630377.

BERA. Churrut hotelean harreragilea eta zerbitza-

ria behar dira. % 948 625540.

DANTXARINEA. Ileapaindegian aritzeko laguntzaila behar da. % 948 599129 (10:00etatik 18:00etara).

OIEREGI. Bertizko natur parkean lanerako pertsona behar da. % 948 592421 edo ostaitz@yahoo.es.

BERA. Ibardingo Beola jaretxean zerbitzaria behar da eguerditan 4 orduz lan egiteko. % 948 630709

ELIZONDO. Emakume euskalduna behar da haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko, astelehenetik ortziratera. % 606370382.

BERA. Frantsesa pixka bat dakien emakume euskalduna behar da Ibardingo oparidenda batean asteburuetan eta udan lan egiteko. % 948630718.

BERA. Esperientzia duen kamioi mekanikoa behar da. % 679892032.

Aluminiozko zurgindegi batean langileak behar dira, tailerrean eta montaketa lanetan aritzeko. % 948510711.

Pertsona behar da ostiralean 5 orduz **etxeko lanak** egiteko. % 617350025.

BERA. Saltzailea behar da Renault tailerrean lan egiteko. Gidatzeko baimena

ezinbertzekoa da. Informatika, euskara eta frantsesa ezagutzak dituena. % 948 630621.

MOTORRA 501 Salerosketak

Audi A4 2.0 TDI salgai, 140 CV, 2006koa. Egoera onean. % 626260556.

Xsara 2.0 HDI autoa salgai, 200koa, hagitz egoera zaindua. % 687 950350.

Ardiak garraiatzeko 2,5x1,35 metroko **remolke** salgai. Frenoarekin eta gutti erabilia. % 660601303.

GranVitara NA-AZ autoa salgai, egoera onean, beti garajean lo egina eta mendian gutti erabilia. 137.000 kilometro eta ITV 2 urterako pasatua, cc,ac, mp3, 4x4 eta abar. % 661821645.

Volkswagen transporter furgoneta salgai, 2.5 TDI, 2002koa eta 5 plaza. % 605717957.

Nissan patrol GR luzea salgai, 2.800, 115 CV, 1994koa, 8.000 euro. % 605717957.

Grand Cherokee autoa salgai. 3.1 motorra, 1999koa (NA-AZ). Egoera onean. 11.500 eurotan. % 628590247.

Grand Cherokee autoa salgai. 3.1 motorra, 1999koa (NA-AZ). Egoera onean. 11.500 eurotan. % 628590247.

MOTORRA 502 Tailerrak

GANIX
TAILERRA

Bilgune mekanika eta elektrizitate

BERA FIAT zerbitzu

Indurain, 9 - 26. 948 630 661

MENDAUR MOTOR 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko autoak:
Mitsubishi DID 3 ate automatikoa eta manuala, Mitsubishi Intense 3 ate, Vitara 3-5 ate TD, Opel Astra, Grand Vitara 5 ate, Opel Zafira, Terrano II 5 ate, Opel Frontera 3-5 ate, Galloper 3-5 atekoa, Galloper Super Exceed 3ate, Montero IO 5 ate, Ibiza, Seat Inca, Almera, Fiat Doblo, Nissan Navarra eta Frontera 3-5 ate.
SUZUKIAK ETA VITARAUK AUKERAN

TALLERES SANTESTEBAN 948 450282 • DONEZTEBE

AUTO IA BERRIETAN ESKAINZA ZABALA (6-12 hilabetekoak)

Clio, Modus, Kangoo, Megane, Megane Grand Tour, Scenic, Laguna, Laguna Grand Tour, Espace.

BIGARREN ESKUKOAK
Renault 19 Chamade, Volkswagen Golf 1.9 DTI 110 CV, Laguna Grand Tour Privilege 2.2 DCI, Laguna 1.9 D, Citroen Saxo 1.9 D, Opel Corsa.

ANIMALIAK 601 Emateko

Txakurkumeak oparitzeko. % 652 725037.

DENETARIK 702 Salerosketak

Piano tekladua Roland E50 salgai. Berria, erabili gabea. % 618 962728.

'Acoustik Control' **soinu ekipoa** salgai, anplifikadore (150W) eta 2 altaboz (100W). Egoera ona, prezio interesgarria. % 678 040 846 edo tx_x_i_k_i@hotmail.com.

DENETARIK 703 Bertzelakoak

Bi akordeoilari esperientziadun eta profesionalak ezkontzak eta bestak alaitzen joko lukete. % 943 622564 / 677310256 (Agustin eta Estitxu).

Mando karroa oparitzeko. Egoera onean. % 661 7670 27.

HARREMANAK 801 Agurrak

Maribel Taberna eta **Aitziber Almandoz** arantzarrak 23 urte beteko dituzte urriaren 19an eta 21ean. Aunitz urtez pareja! Kua-drilla zuen tragan esperun dago! Muxu haundi bana biei!

Servicios Berawin

Aseguru aholkulariak - Zerbitzuak
Informazio Inmobiliaria

Foco Plaza, 6
31780 Bera

Tlfno.: 948 630 601
Fax: 948 630 805

berawin@terra.es

Argazki soilak: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,30€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



Zorionak Donamariako **BIHOTZ BALEZTEN**A eta **XUBAN ERBITI** lehengusuei irailen urteak bete zituztelako. Mantso baina segurur! Zorionak Turko eta Yuskiren partetik!!!



Sunbillako **PABLO IRAZOKI OLAIZOLAK** 3 urte bete ditu urriaren 10ean. Zorionak bihurri! Muxu haundi bat Urdazubitik aitaxi eta amaxiren partetik.




ZURINE SARRATEA JABALERA beratarak 3 urte beteko ditu urriaren 21ean. Zorionak eta musu haundiak familiaren partetik.



ONINTZA OJARTZABAL eta **NAROA MAISTERREN**ak urriaren 16an eta 17an 3 eta 2 urte bete dituzte. Muxu haundi bat Katixa eta Asierrin partetik. Zorionak!



UNAI eta **JOANA GOKOETXEA MITXEL**ENAK urriaren 16an urtea eta 25ean 4 urte beteko dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik eta muxu haundi bat.



IRATI ELIZONDO BENGOTXEA beratarak urriaren 11n 3 urte bete ditu. Zorionak eta mila muxu haundi atta eta amaxoren partetik.



BENAT GARTXTORENA. Zorionak eta 15 muxu etxeokoen partetik. Gure herri kirolari hoberenari besarkada haundi bat.



JULEN ZELAIETAK urriaren 8an 27 urte bete ditu. Zorionak familiaren partetik. Ondo pasa eguna, eta konfuz txanpainarekin e!



Donostiako **MIKEL JIMENEZ ZAPIAINEK** 2 urte beteko ditu azaroaren 2an. Zorionak aita, ama eta familia guztiaren partetik. Bi muxu haundi bitxito.



MAITE PIKABEA beratarak urteak bete ditu urriaren 15ean. Zorionak eta aunitz urtez ama, atta, senide, senarra eta Victor semearen partetik.



LEIRE eta **ANE BEREAU** aranztarrek 3 eta 7 urte bete dituzte irailaren 13an eta 28an. Aunitz urtez eta muxu haundi bana familia guztiaren partetik.



Urriaren 27an 4 urte beteko dituen gure **XANENTZAT** zorionak Sarako eta Berako familiaren partetik.



Zorionak gure lehengusu **XANI**, urriaren 27an 4 urte beteko dituelako. Muxu haundi bat Arantxa eta Maialenen partetik.



Etxalarko **XUBAN GASTEARENA IRISARRIK** azaroaren 3an 2 urte beteko ditu. Zorionak eta muxuak Ezkurra eta Etxalarko familia eta bereziki Jonen partetik



MIKEL PRIETO ETXEGARAI beratarak 3 urte beteko ditu urriaren 23an. Zorionak familia guztiaren partetik.



Oronoz-Mugairiko **JOEL GARAIKOETXEA** urtea bete du irailaren 17an. Muxu eta besakada haundi bat eta zorionak zure familiaren partetik.



Gatzeluko **JON MIKEL OPOKA MITXEOK** 4 urte bete ditu urriaren 8an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik. Muaa!!!

ttipi ttapa

- >> barnak
- >> agenda
- >> urtebetetzeak
- >> merkatu txekia
- >> dendak
- >> bideoak
- >>

www.ttipi.net

urtebetetzeak interneten

ZOZKETA

- Ordenagailurako onkarazko bideojokoa
- 10 urteko gorako gaztetuentzat
- Elheyzar Fundazioak egina

Zozketan parte hartzeko, urriaren 22a baino lehen deitu 948 635 458

MENDIEXPO 2007
Mendia, Eskia, Abentura eta Bidalak
Urriak 26 - 28
<http://mendiexpo.ficoba.org>
mendiexpo@ficoba.org

- * Simone Moro, Patxi Usobiaga, Iker Fernandez, e.a. en proiektuak.
- * MENDI, BTT ETA ESPELEOLOGI IRTEERAK.
- * Mendian prebentzio eta segurtasun ikastaroen (estatuko erreskate taldeen), Nazioarteko Boulder Open-a, Material gogorraren 2. eskuko merkatus, e.a.

GUZTI HAU ETA GEHIAGO... <http://mendiexpo.ficoba.org>

PERIA NEUTRIA EN CO₂
CO₂ AN NEUTRIDA DEN AZOKA
BALON NEUTRIE EN CO₂

FICOPA **MENDIEXPO**
Recinto Ferial de Gipuzkoa - Irún
Gipuzkoako enstuzatza



AMAIYR

vegasa®

Modelo berriak:
 rustikoak • modernoak • praktikoak
 Entzimerak: silestone • granito • corian ...
 Elektrogailu nazionalak eta alemanak
 Rosa Seminario 13 • Tel.: 948 450 400 • DONEZTEBE



**ZURE ETXEA POLITA JARRI NAHI DUZU?
 KOLONIAL ESTILOA GUSTOKO DUZU?
 ZATOZ, AHO ZABALIK GELDITUKO ZARA?**



Muebles
Telletxea

DONEZTEBE • Rosa Seminario, 12 • Tlfno: 948 450 258 • 948 451 811



LURRAREN EGUNA 2007

URRIAK 28 BERA

URRIAK 27, LARUNBATA

17:00 Lizuniagako Igoera (lasterketa)

18:30 Barazkiopil lehiaketa

URRIAK 28, IGANDEA

10:00 Txalaparta. Eskulangileen azoka eta erakusketa. Barazki erakusketa.

Bortzietako produktuen salmenta. Argazki erakusketa. Ikastetxeetako postuak.

11:00 Gasna eta sagardo lehiaketak

11:30 BERA trikitixa eskolakoak

12:00 Berako Musika Eskola eta Gure Txokoako dantzariak

16:00 Haurrentzako ikuskizuna Alzaten: "Bihar" txotxongilo taldea (Kli! Kli! Birzikla!)

17:30 Sari banaketa, enkantea eta bertsolariak (Julio Soto eta Julen Zelaleta)

18:30: Dantzaldia: Irats taldearen azken emanaldia

ILUNABARREAN Joseba Irazoki eta Belardian

Taloak, sagardoa, gaztainak eta eskualdeko produktuak egun guzian

* Ekitaldiak Alzateko karrikan egingen dira eguraldi onarekin, eta euria bada berrizt Kiroldegian eta Alzateko frontoian.

